

Uholdeak saihesteko zubia Oñatin



Zubillagako zubi zaharra bota egin zuten, eta berria inauguratu dute oraingo astean | 24

Amaia Gabilondo : "Ingurumena biziberrituz XXI. mendeko baserritarrak izan nahi dugu" | 8



Antzuolako armarria aldatu egin beharko litzatekeela ondorioztatu dute prozesu parte-hartzailean | 23



Egun ederra pasa zuten atzo Arrasaten, santamasetan. Goizeko euria atertuta, primeran ibili ziren erosle, saltzaile eta gainerako bisitariak | 11

Demaseko Santamas!



ARGAZKIAK: JULIO CALLEJA

URTARRILERA ARTE, IRAKURLE!



Hurrengo GOIENA urtarrilaren 10ean argitaratuko dugu. Baina, lehenago, hilaren 30ean, 2010eko urtekaria jasoko duzue etxean. Urte berri on!

DEBAGOIENA
2010
URTEKARIA

Saskibaloi onena domekan Ointxe! eta MUREkin

Gabonetan beste hainbat kirol hitzordu ere egongo dira | 30

Huhezinema euskal film laburren lehiaketa deitu dute, laugarren urtez | 32



Euskarazko palindromo lehiaketa deitu du AEDk

Euskal Herri osorako deitu du eta zabalik dago izenematea | 32

Manolo Cainzosek liburu berria

Euskal gatazkaren gainean idatzi du | 5



Gastuak gastu, urte bukaeran San Silbestre berdin denontzat

- Aurten ere, ezohiko gastua egingo dugu Gabonetan
- 1.000 euro gastatzeko gertu dago familia bakoitza
- Otzarako zati garrantzitsuena itsaskiak dira

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Gabonetan ohi bezala gastatuko dute aurten Euskadiko familiek, krisiaren ginetik; hori da Euskadiko zenbait kontsumitzaileen elkartek egin duten estimazioen emaitza. Ukaezina da krisiaren eragina, eta badirudi gastatzeko joera hori pixka bat baretu edo txikitu egin dela azken urteotan; hala ere, azterketen arabera, oraindik larregi kontsumitzeko tentazioak gainditzen ditu asmo on guztiak.

Hala, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa (EKA-OCUV) ondorioztatu du Euskal Herriko etxe gehienetan 500 eta 1.000 euro artean gastatuko dugula aurtengo Gabon garaian. Hala ere, "Gabonetan kontsumoa txikitzen den hirugarren urtea da jarraian", esaten du elkarte horrek. Gainera, esan du familiako gastu garbia edo netoa txikiagoa izango dela aurten.

EKAk Euskal Herriko 600 kontsumitzaile inkesta egin zien datu horiek ateratzeko. Galdetutako lagunen %47,31k esan zuen 500 eta 1.000 euro bitarteko gastua egingo zuela. Galdetutakoen %18ek bakarrik esan zuten 500 euro baino gutxiago inbertituko zituztela Gabon sasoiko erosketetan. Azkenik, %34,62ek ezin izan zuten estimaziorik egin. Hori bai; gehienek 1.000 euroko muga zeukaten Gabonetako aurrekonturako.

Etxeko otorduak, sakratuak

Ateratako beste ondorio batzuk hauek izan ziren: galdetutakoen %81,23ek esan zuten iaz adina gastatuko zutela aurten, eta %17,24ek, iaz baino gutxiago. Erdiek baino gehiagok esan zuten krisiarengatik txikituko zutela aurtengo aurrekontua.

Etxeko otorduetan egiten dugu gastu handiena, EKArekin ikerke-

DATUA

%81

IAZ BESTE

EKAk Euskadin egindako galdeketa baten, %81,23ek esan zuten iaz adina gastatuko zutela aurten Gabonetan.

ESANAK

"Urtero antzera gastatuko du jende gehienak, krisia egonda ere"

"Azken egunerako lagatzen ditugu erosketak, eta hori ordaindu egiten dugu"

JOSE MANUEL URKIDI |
GIPUZKOAKO KONTSUMITZAILEEN
ELKARTEKO KIDEA

taren arabera: hori da Euskadiko etxeen %49,62en kasua. Hurrengo datoz opariak (jostailuak aparte), familien %33,46endako; eta loteria, azkenik, familien %16,5endako.

EKAk beste erantzun bat azpimarratzen du: elkarrizketatu batek ere ez luke txikituko jostailuetarako edo etxerako jatekoetarako gastua, eta bakarrik %2ek txikituko lukete oparietarako aurrekontua beste ezer baino lehenago. Aukeran, %45ek etxetik kanpo otorduetan gutxiago gastatuko lukete; %30ek, loterian; eta %26ek Gabonetako aisialdi ekintzetako aurrekontua murriztuko lukete lehenengo.

Izokina, 9 eurotan

Kontsumoari dagokionez, Gabonak urtarrilean bukatzen dira; hortaz, datozen egunotan ere neurritz kanpo gastatzeko hamai-ka aukera agertuko zaizkigu. Horien aurrean, "urte osoan bezala, zentzuz jokatzeko" gomendatzen du Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkarte (GKE) Eibarko taldeko kide Jose Manuel Urkidik. Jatekoak jende askok erosi ditu dagoneko, baina oraindik erosi ez dituztenei gogorarazten die "azken egunetan, prezioak handitu" egiten dituztela saltoki askok. Arraina, okela... ahalik eta goizen erostea gomendatzen du berak, eta izoztuta gordetzea. Hala ere, "azken egunerako lagatzen dira erosketak, eta gero, gehiago ordaindu behar izaten da", esaten du. Datuek arrazoiak ematen diote: hala, Eguberri egunean (bihar) erositako itsaskiak ohikoaren bi halako kosta dezake.

Baina jatekoak dira Gabonetako otzararen zati garrantzitsuena euskal familiendako, eta, EKArekin datuek agertzen duten bezala, hor gastatzeak ez digu minik ematen: hala, aurten ere



Azken egunetan, saltokiak jendez lepo daude. Argazkian, Bergarako supermerkatu bat.

"ohiko antzera" erosi du jendeak, Urkidiren esanetan: "Itsaskiak asko erosten dira; bisigua ere bai..." Arrainetan eta itsaskietan gutxiago gastatu gura dutenek badute horren aukera: adibidez, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak (EKE) esaten du bisiguak 40 euro kostatzen dela batez beste, eta izokinak, berriz, 9 euro.

Okelari dagokionez, azpizuna eta esneko arkumea dira izarra. EKE elkartearen esanetan, jatekoen otzarako gainerako gastuak, arloka, hauek dira: turroiak eta goxoak, edatekoak, eta hestebeteak eta pateak.

Gainerako arloak dira jostailuenak eta oparienenak; eta, azke-

nik, aisialdi eta ospakizunenak. Azken horretan, Jose Manuel Urkidik komentatzen du fenomeno berri bat dagoela: "Azkenaldian, gero eta jende gehiagok egiten du bidaiaren bat Gabonetako oporretan". Gero eta ohikoagoa bihurtzen dabil Gabon zaharra etxetik kanpo ospatzea, leku esanguratsuren batean; edo aste bete eskiatzera joatea.

Bestalde, oparien saila ere zertxobait garestitu da azken urteotan, jostailu edo tramankulu teknologikoak gero eta gustukoagoak direlako.

Hortaz, litekeena da, azken urteotan bezala, Hego Euskal Herrian eta Espainian egitea Europako Gabonetako gastu han-

Gabonetako gastuen ondoren, kexu gutxi batzuk eta urtarrileko aldapa

Gabonetan neurritz kanpo gastatzeari ez diogu utziko aurten, aztarna guztien arabera. Eta ez hori bakarrik; zenbait kasutan, gastua handitzen joan da urterik urte, ohitura berriak sortzen joan diren neurrian. Bada, ohitura horiek isla dute kontsumitzaileen elkarteek gero jasotzen dituzten kexuetan. Horrela diosku, behintzat, Eibarko GKEren (Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkarte) bulegoko ordezkari Jose Manuel Urkidik: "Azkenaldian, jende askok bidaia egiten du Gabonetan; astebete kanpoan ematen du, adibidez. Bada, bidaia ez zaila ondo irten-edo, horrelako arazo berri ematen digute gero bulegoan". Bestelako gastuen gaineko kexurik ez dutela jasotzen esan digu.

Gabonetako erosketek beste ondorio garbi bat izaten dute egun horiek pasatu eta gero: urtarrileko aldapa beldurgarria. Baina horri aurrea hartzea ere denon esku dagoela gogorarazten digu Urkidik: "Gabonen ondoren, bizitzak jarraitu egiten du; beraz, norberak ikusi beharko du zenbat gastatu ahal duen Gabonetan".



dienetariko bat. Europako Bata-suneko kide diren herrialdeen artean, Hego Euskal Herriak eta Espainiak gastu handienetariko bat dute Gabonetan; errenta-ma-la handiagoa duten herrialde batzuek baino gehiago gastatzeko ohitura dugu.

"Gabonen espiritua"

Oraindik egiteko dauzkagun gas-tuetan zuhur jokatzeko dei egiten du Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkarteko kide Jose Manuel Urki-dik: "Urte osoan bezala, zentzuz gastatzea da onena; adibidez, erosketa handi bat egiterakoan, zerrendarekin joatea komeni da. Bestalde, jostailuak erosterakoan, dagokion adinarendako direla zaindu dezatela eta Europako Batasunak zertifikatuta egon daitezela begira dezatela erosleek, jostailu batzuk ez direlako homo-logatuta egoten; erosketa-txarte-la edo tiketa gorde dezatela; eta bermea eska dezatela".

Borondate handia izanda ere, Gabonetan poltsikoak hustea oso erraza dela gogora ekartzen digu adituak, "Gabonen espirituaren aitzakiarekin saltzen" dizkigute-lako hainbat produktu edo zer-bitzu. "Eguberriak, kaleko musi-ka, argiak... denak eragiten digu, eta gero esaten diogu gure burua-ri beharbada ez genuela honakoa edo hangoa behar", da bere gogoe-ta: "Familia asko larri dabilta eta gastu aldetik normalago eman-go dituzte Gabonak; baina bizi-lagun asko gara, eta egoera oro-korra ez da hori izango".

Buruarekin gastatu

BETI BEZALA

Komeni da urte osoan bezala jokatzeko; hau da, zentzuz. Esaterako, zerrenda batekin joatea komeni da.



JOSTAILUAK Ziurtatu jostailua umearen adinari dagokiola, Europako Batasuneko zertifikatua duela eta homologatua dagoela.

ESKATU Opariak erosterakoan, ez ahaztu erosketa-tiketa edo txartela eskatzeaz, eta, dagokionean, bermea.

ALTERNATIBAK

Betiko aukeren alternatiba merkeagoak daude: adibidez, bisigua erosi beharrean, arrain merkeago bat, izokina edo legatza kasu.



DENA BERE NEURRIAN

Urtarrilean, bizitzak aurrera darrai, eta gastua zaintzea komeni da, baina bere neurrian: noizean behin gastu estra bat ere egin behar da.



Vitoria-Gasteiz

GABON

ZURE

EROSKETAK GASTEIZEN

gasteiz on



WWW.GASTEIZON.COM/BICIXMAS

WWW.FACEBOOK.COM/CLUBGASTEIZON

BABESLEA:

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Mondragonek 22,2 milioi euro inbertitu zituen 2009an elkartasun konpromisoetan

Gobernuz kanpoko hainbat erakunderi, bereziki Mundukideri, babesa eman zion Mondragonek

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Mondragonek 22,2 milioi euro inbertitu zituen aurreko urtean gizartearekin zerikusia duten elkartasun konpromisoetan. Porzentaje hori Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoaren bitartez bideratzen da (HKSF), eta iaz, esandako moduan, 22,2 milioi eurora iritsi zen. 2005etik 2009rako bosturtekoan, eduki sozialeko proiektuetan egindako inbertsioa 164 milioi euro izan zela adierazi dute Mondragoneko iturriek.

Mondragon Taldeko ardura-dunek azpimarratzen dutenez, "Arrasateko esperientzia kooperatiboaren ezaugarria izan da ingurunearekin konpromiso solidarioa eta erantzukizun soziala izatea. Horren baitan aipa daiteke ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko egiten den ekarpen handia, enplegua eta enpresa jarduera sortuz, baita urtero kooperatiben etekinen %10 izaera sozialeko proiektuetan inbertitzea ere".

Elkarlana

Iazko ekarpenari dagokionez, 22,2 milioi euro horien helmuga izan



Mundukide duela bederatzi urtetik ari da Mozambiken lanean. | MUNDUKIDE

DATUA

164

MILIOI EURO

2005etik 2009a bitartean, 164 milioi euroko inbertsioa egin zuen Mondragonek eduki sozialeko proiektuetan.

zen Mondragon Unibertsitatearen eta Politeknika Ikastegia Txorie-ri, Lea Artibai Ikastetxe eta Goierriko Lanbide Eskolaren eremuko prestakuntza eta hezkuntza garapeneko proiektuak babestea; halaber, ikerketari lotutako erakundeetara ere bideratu zen ekarpena.

Elkartasun fondo horrekin, halaber, euskara sustatzen eta herri eta hirietan kultura jardue- ra ugari garatzen lagundu zela

adierazi dute Mondragonetik; Hirugarren Munduan proiektu zehatzak garatzen parte hartu zuten eta gobernuz kanpoko hainbat erakunderi babesa eman zioten, bereziki Mundukideri.

Mundukide Mondragon Taldearen eremuan bultzatu da, premia duten herrialdeetan ekin-tza sozial komunitarioak garatzeko helburuarekin. Hamar urte bete berri ditu Mundukide Fundazioak (www.mundukide.org) eta besteak beste, Marrupan (Mozambiken) dihardu lanean. Bederatzi urte daramatzate Niasa probintziako Marrupa distrituan lanean, hango biztanleen garapen sozioekonomikoa helburutzat duen programa aurrera eramaten Era berean, kooperazio proiektuak bultzatzen dabil Mundukide Brasilen, Kuban edota Ginean.

Gizarteratze programak

Mondragonen ekarpenarekin, bestalde, kirol eta asistentzia jarduera ugari bultzatu dituzte: gizarteratzeko programak, ezin- duendako laguntzak eta adinduei zuzendutako programak tar- tean.

Sohütako ikastolaren aldeko otarreak daude salgai, 39 eurotan

Iparraldean, Sohütako Ikas- tola handitzeko obrak egingo dituzte datorren urtean. Dirua batzeko helburuarekin Zube- roako produktuak dituzten otarreak jarri dituzte salgai. 39 euro balio du otarre bakoit- zaka eta ardi gazta (kilo bat), ez- tia gaztainatzea (500gr), pate- a ahate gibelarekin egi- na (200gr) eta biskotx poltsa bat (200gr) batzen ditu. Inte- resatuek ondoko helbide elektronikora jo dezakete eskaerak egiteko: zuberako.ikas- tola1@orange.fr.

Fagor etxearen 2.0 webgunea, interaktiboagoa

Fagor Etxetresnak mundu digitalera jauzi egin du, 2.0 webgunea abian jarritz. Indus- tria sektoreko lehen enpresa pribatua bilakatu da Fagor webgune gaurkotu, modernoa eta teknologikoki aurreratua izaten. Fagorreko produktuen kontsumitzaileek aukera izan- go dute iritziak, iradokizunak edota balorazioak plazaratze- ko. Era berean, Twitter edo Facebookeko erabiltzaileek haien kontaktuekin parteka- tu ahal izango dute Fagorren eskaintzak.

Td

TRIPALDI doktorea

Hortz Klinika

Zure irribarrea zainduko duten:

Enrique Tripaldi doktorea
Odontologoa, elkargokide-zk.: 569
Kirurgia, inplanteak eta estetika

M. Carmen Rojas doktorea
Elkargokide-zk.: 900
Errehabilitazioa, ortodontzia eta endodontzia

Luis Campodonico doktorea
Elkargokide-zk.: 1.635
Ortodontzia

Susana Meruelo
Hortz higienista

Elbarrientzako instalazioak
Ordutegi jarraitua goizez eta arratsaldez
Neurrira egindako finantzaketa

ESKAITZA BEREZIA

Hortzak zuritzea:

%50

deskontua

urtarrilean eta otsailean.



Hortzetako estetika eta osasun tratamenduak:

- **Inplanteak eta protesiak egunean.**
- **Ortodontzia** helduentzat eta umeentzat. Bracket estetiko zuriak.
- **Periodontzia**, entziak berritzea.
- **Kirurgia mukogingibala** (entzien kirurgia estetikoak, inplanteekin edo barik).
- **Plasma hazkuntza-faktoreekin**, hezurra osatzeko eta orbaintze ona izateko.
- **Hortz estetika.** Portzelanazko karillak. Zuritzea argi hotzarekin.
- **Endodontzia.**
- **Protesiak eta errehabilitazioa.**

Teknologia aurreratuena eta erraztasun guztiak zure eskura:

- Ekipamendu moderno eta osatua, kontsultatik mugitu barik
- Erradiografia panoramikoa, teleradiografia eta erradiografia digitala
- Hiru dimentsioko diagnostikoa inplanteen ezarpenekin.
- **PADI**, Osakidetzaren haurrentzako arreta programa.
- Enpresa eta taldeentzako deskontuak (hortz-asegururak)

Justo Garate plaza 1, behea / BERGARA
943 76 70 76

*Gabon
zoriontsuak, guztioi!*



Bergarako Gernikako Akordioaren sinatzaileek udaletxeko eskaileratan eman zuten prentsaurrekoa. | LANDER MUÑAGORRI

Gernikako Akordioa helaraziko zaie bergararrei urtarrilean zehar

Urtarrilaren 8an hitzarmenaren esku orriak banatuko dira kalean, eta oraindik zehaztu ez den egunean sinatu gabe duten alderdiei aurkeztuko zaie

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Martitzenean Gernikako Akordioa zabaltzeko eta atxikimenduak biltzeko ekimena martxan jarri zuten Bergaran. Herriko hainbat ordezkari egon ziren bertan, tartean hitzarmena sinatu zuten indar politiko eta eragile sozial-etako ordezkariak. Ezker abertzalea, Aralar, EA, LAB, ESK, Etxerat, Amnistiaren Aldeko Mugimendua, Gazte Independentistak eta Ikasle Abertzaleak izan dira Bergaran akordio honen inguruan atxikimendua erakutsi duten eragile, sindikatu eta alderdiak.

Akordioa jendaurrean aurkezteko egin zuten prentsaurrekoan adierazi zutenaren arabera, "inolako indarkeriarik gabeko egoera bermatua behar da, normalizazio politikorako bidean".

Bergara agiria sinatu zutenek "bertan azaltzen diren postulatuak geure egin eta betetzeko konpromisoa hartzeaz bat, euskal gizartearen parte hartzea sustatzeko konpromisoa ere hartzen dugu. Izan ere, euskal gizarteak izan behar du konponbide demokratikoaren garapenaren bermatzailerakarra", euren hitzetan.

Bergarako udaletxeko eskaileratan elkartu ziren sinatzaileek jakitera eman zutenaren arabera, Gernikako Akordioa ez da helmuga, "gatazka politikoa eta indarkeriekin amaitu eta Euskal Herriaren normalizazio politikoaren lorpenerako abiapuntua baizik".

Datozen hitzorduak

Aurreko astean Arrasate eta Aretxabaletako Gernikako Akordioa-

ren sinatzaileak, herri horietako kaleetan aritu ziren hitzarmenaren inguruko informazioa jendearen artean zabaltzen. Bada, helburu berarekin, datorren urtarrilaren 8an, eguerdiko 12:00etatik aurrera esku orriak banatzen ariuko dira akordioaren sinatzaileak Bergarako kaleetan barrena.

Hitzordu horrez gain, urtarritetik aurrera Bergarako gai-nontzeko eragile sozial, politiko eta sindikalei akordioa aurkeztuko diete hitzarmenarekin bat egin duten alderdi politiko eta eragile sozialek. Era horretan, hitzarmenaren aldeko atxikimendua zabalagoa lortu nahi dute sinatzaileek. Horretarako batzarrak burutuko dute, oraindik zehaztu ez diren egun eta orduan.

Euskal gatazkaz idatzi du Manolo Cainzosek

'Cartas para el diálogo desde Euskal Herria' izeneko liburua argitaratu berri du

L.M. | BERGARA

Manolo Cainzosek *Cartas para el diálogo desde Euskal Herria* liburua kaleratu berri du Milla-ka argitaletxe bergararrarekin. Argitalpen horretan, euskal gatazkaren gaineko hamabi gutun idatzi ditu galiziar jatorriko baina Bergarara ezkondu zen irakasle ohiak. Orain, Euskal Herriko hiritar xume moduan definitzen du bere burua, eta euskal gatazkaren gaineko elkarrizketa gisakoa da kaleratu duen lana.

"Ez da lan objetiboa, ez dudalako objektibitate hutsean sinisten. Hala ere, horretan saiatzen naiz, baina subjektibitate erasokor baten oinarrituta", azaltzen du liburuaren egileak bere jarrera azaltzean.

Liburua 10 euroren truke lortu ahal izango da Arrasate-



Liburuaren azala. | GOIENA

ko K-3 Digitala denda berrian, Maalako Errabala 29an, hain zuzen ere.

Manolo Cainzosek beste liburu bat du argitaratuta: *Herri mugimendua. Un movimiento ciudadano. Bergara 1970-80*, hain juxtu; hura ere Millaka argitaletxeak atera zuen.

Kutxarekin eta Euskadiko Kutxarekin hitzarmena sinatu du Uemak

L.M. | BERGARA

Uemako 40 udalek hitzarmena sinatu dute Gipuzkoako Kutxarekin eta Euskadiko Kutxarekin. Horien artean Debagoieneko lau udalerri daude: Antzuola, Aramaio, Bergara eta Elgeta, hain zuzen ere. Hitzarmen horren bitartez, bi finantza erakundeek konpromisoa hartu dute Uemako 40 udalerri horietan eskaintzen dituzten komunikazio guztiak euskaraz egiteko.

Konpromiso horien artean honako hauek hitzartu dituzte finantza erakundeek: langile finko zein aldi baterakoak eus-

kaldunak izatea eta behar bezala prestatuta egotea; bezeroei lehen berba euskaraz egitea; txartelak euskaraz sortzea, kontrarik esan ezean; publizitate, kartel eta eskuorriak euskaraz egotea eta lehenetsuna izatea...

Hitzarmen horrek bost urterako iraupena du, eta urtero helburu zehatzak ezarriko dira bilakaera nola doan ikusteko.

Aramaion, Euskadiko Kutxa

Aramaion Kutxak inongo sukurtalirik ez izanda, aipatutako hitzarmena Euskadiko Kutxarekin bakarrik sinatu dute.

Zorionak eta Urte berri on!



Zure bataio, jaunartze edota ezkontza ospakizunendako aproposa



leku eta egun ahaztezinak



Etxe
Aundi

Jatetxea-Hotela**

Torre Auzo 9. OÑATI (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 19 56

www.etxeaundi.com

ZABALIK

IÑAKI PEÑA

'http://goiena.net/iritzia/'



Medikuen errebolta

Iraultzarako deia ez da oraingoa, horren aldeko hainbat susta-tzaile eta matxinatzeko arrazoi bat baino gehiago dagozan arren. Kontua da lehengo egunean Bilboko liburutegi baten zoko ezku-tu baten topau nebala harribitxi bat, 1979ko abenduko *Jakin* aldizkaria, *Medikuntza Euskadin* gaia hartu ebana. Barruan, Joan Mari Torrealdaik idatzitako artikulua. *Eredu erreformazale eta osasun indibidualaren medikuntza anarkistaren artean* kokatutako sei osasungilek berba egindakoa, bibliografia oparoagaz. Jarraian pasarte batzuk transkribiduko ditut, komentarioekin lagunduta:

"Medikuntza eta agintea elkarren ondoan eta elkarri lagunduz bizi dira". Abadea, alkatea eta medikua, hirutasun klasikoa. Klasikoegia aukeran, egungo bestelako hirutasunak iruditzen jataz neurri.

"Sanital presupostua Estatu-ko presupostu orokorra baino 0,1 biloi gehiago da. Eta horren %60 botika industriaren montajeare-na da. Zer egin honen aurrean: Erreboltatu? Nork egingen du, ordea matxinada hau?". Farmazia industriak eragindako ustelkeria bistan da, baina oso bitxiak dira testuan emondako datuak. Zer arraio izango zan aurrekontu oro-korra? Benetan sasoi hartan osasungintzak hainbeste diru jasotzen eban? Ez dot uste ba.

"Medikuen kontra altxatzeko arrazoirik ez zaio jendeari falta, baina ez du inork egingo, medikurik gabe angustiaturik, desanpa-raturik ikusten bait dute beren burua". Bufa! Eskerrak azkenean altxamendu hori ez zala gauzatu...

"Medikuen esku gelditzen da altxatzea eta bere gizarte-funtzioa aldatzea. Ez gizarte-aldatzaile baizik eta gizarte-frenatzaile da medikua. Gaisotasunaren sustraira jo beharrean, gizarte hau bere akats guztie-kin iraunarazi egiten du, pastillak esker-eskuin banatuz". Saltsan sartzen gara. Prebentzinoa vs botikak. Medikuntza alternatiboak vs ofiziala. Erditze naturala vs epidurala. Txertoak ez ala bai. Ondo da, baina badago bi munduen arteko zubirik? Hurrengo artikuluan sakonduko gara. Bitartean, Egubarri eta urte barri onak zuei!

USTEAK USTE

ARRITXU BARRUSO | 'abarruso@goiena.com'

A zelako deskubrimendua!

Bergarako Gabonetako kontzertua aurkezteko plazera izan dut aurren. Urte askotan egin izan den kontzertua da, baina esan behar dut nik pasa den urtean deskubritu nuela, lan kontuengatik. Eta a zer-nolako deskubrimendua! Pasa den urtean kamerarekin grabatzea tokatu zitzaidan eta aurren, berriz, kontzertua bera aurkeztea. Bietan ere gozatu egin dut. Zorionik beroenak eman nahi dizkiet bertan parte hartzen duten musikariei eta abeslariari. Orkestra Sinfonikoak 25 urte beteko dituela-eta Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak opari ederra eskaini zigun: *Avatar* soinu-bandaren moldaketa. Eskerrik asko eta zorionak!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'



HANDIK ETA HEMENDIK

Oparia

Anjel Lertxundi

'http://berria.info/blogak/lertxundi/'

Munduko libururik garestiena saldu berri du Sotheby's enkante-etxeak. Erosleak ia bederatzi milioi euro ordaindu ditu Amerikako hegaztiei buruz Audubon naturalistak egindako perla bibliografikoarengatik. Ez da mundua -eta munduan, gu- ulertzen eta hobetzen laguntzen duen liburu klasiko horietako bat. Eta ale bakarra izanik, ez du jende askok gozatuko. Halaber, egingo nuke erosleak plusbalioarengatik maite duela, haren balio estetikoarengatik bainoago.

Orain urte batzuk Kardaberaz perla txiki bat oparitu zidan adiskide batek. Bere aita hil berri, liburuxka topatu zuen haren gauzen artean. "Nik baino etekin gehiago aterako diok. 1990eko prezioa dauka kortesia orrialdean. 27.000 pta jartzen du. Biziki eskertu nion nitaz gogoratu izana. Ordutik liburu asko irakurri dut, badira tartean etekin handia atera diedanak. Irakurtzeko nago Jesus, Maria ta Joseren deboziñoak liburucotik atarariko devosiño batzuc.

Oharra: ez da berdin-berdina, baina egunak

Txillidaren Topos IV eskulturaren kasua ekarri du: lapurrek 30 eurotan saldu zuten 800.000 eurotan aseguratuta zegoen pieza. Egokiera polita balioaz eta gainbalioaz eztabaidatzen hasteko.

Sorkuntza prozesua

Mikel Lizarralde

'http://eibar.org/blogak/lizarralde/'

Interes handiarekin jarraitzen ari naiz Orsai aldizkariaren sorkuntza. Ketari abilarri esker aldizkari berri honen ale baten jabe egingo naiz laster. [...]

Hein handi batean Interneten egiten diren wireframe-ak gogoratu dizkit. Oso prozesu ederra da webgunea marraztearena. Zer egin ahal izango den, zein den helburua, funtzionalitateak eta abar. Marraztea bera ederra da, baina politena orri hutsaren aurrean zerotik webgune bat pentsatzearen prozesua da. [...]

Gustura ikusiko nuke, zineman bezala, liburu bat nola sortzen hasten den Sarri, edota abesti bat Mursego, bertso bat edota komiki bat. Baita ingeniari batzuk Aharixe izeneko kasko berezi batekin

ideiak izaten hasten direnean.

Nik neuk ez dakit nolakoa izango den Orsai, baina gustura jarraitzen dut ekintzaile hauen sorkuntza prozesua.

Protagonismo nekagarria

Joxe Aranzabal

'http://goiena.net/blogak/farao/'

Hilabete izango da, hor nonbait, Wikipedia irekitzen dudan bakoitzean -berdin euskaraz, gaztelaniaz nahiz ingelesez- goiburuan Jimmy Wales Wikipediako fundatzailearen mezu bat agertzen dela, argazki eta guzti. Bertan klik eginez gero, Walesen gutun labur bat agertzen da, erabiltzaileok animatzen dirua eman diezaiogun Wikipediari, honek ez baitu publizitaterik onartzen bere orrietan.

Ondo idatzita dago, eta bat nator planteamendurekin. Aldiz, nekatzen hasita nago Jimmy Walesen protagonismoarekin. Horrelako eskariak egitea bidezkoa da, baina iruditzen zait egin daitezkeela beste modu batean, hainbeste zentratu barik sortzailearen irudian.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Monika Belastegi
Sailakako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Ziorza Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Murumendiarrak
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550:
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550:
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaleko Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donika

(Donikako langileak)
Oñati

Urriaren erdialdean
mugimendu arraroak sumatzen
hasi ginen, inbentario bat
bitarteko.

Abuztutik ez du
zentimorik ikusi, eta, orain
arte lanean aritu garen arren,
Donikak ez ditu ezer
ordainduko. Irailetik aurrera
gauzak konponduko zirela zin
egin ziguten eta orain
bat-batean: "Ez dago dirurik";
nagusia aurrinaren omen dago
eta ez du Donika aurrera
ateratzeko baliabiderik.

Herritarrok izango gara honen testigu, denborak jartzen baitu bakoitza bere tokian.

Ordainetan, gure eskubideak aldarrikatu nahi izan ditugun bakoitzean mehatxuak besterik ez dugu jaso: "Si queréis sangre, habrá sangre"; "Si queréis guerra, habrá guerra", esaterako.

Bukatzeko, bezero eta hornitzaileoi sortu dizkizuegun arazoengatik barkamena eskatu nahi dizuegu, nahiz eta egoera honen errudunak gu ez izan.

Noiz ikusiko dugu
Realaren partidu
bat egun argiz?

Markel Alonso
Arrasate

Guraso askok egiten dugun galdera da hori. Izan ere, aurtien Realta gorengo mailara igo dela-eta ume asko egin dira taldeko bazkide edo abonatu.

Eta zelan eskertzen digute hori? Partiduak 21:00etan eta 22:00etan ipintzen.

Eta hori gutxi balitz, umeen karnetarekin umeak bakarrik joan ahal dira; hau da, nik 5 urteko umea daukat, eta ezin dut 22:00etako partidu bat ikustera eraman, lo hartuko luke-eta.

Aurreko zapatuan ere ikusi zen telebistaz, umeak harmailetan lo. Baina ezin diot lagun bati eman umearen karneta, ez diotelako sartzen utziko.

Ez da justua.
Badakit errua ez dela
Realarena (ala bai?), baina
partidu bat eta hurrengoa ere
halako ordutegi ez aproposetan
jartzea...

Izan ere, horrelaxe nahi
dugu gazteak Realera
erakartzea?

Tira, ba, hemendik, taldeko
zuzendaritzari esan| nahi diot
kontuan har dezala Realeko
bazkide asko, eta etorkizuna,
umeak eta gazteak direla.

Horixe ba: noiz ikusiko
dugu Realaren partidu bat
egun argiz?

Iaz, behintzat, partidu asko domeka eguerdietan izaten ziren, 12:00etan.

Bai, badakit, bigarren
maila zen, baina ez zegoen

Hausnartu, mesedez.

Olasagastik esan
zituenak... eta
txaloak?

Paco Marcos
Donostia

Kristorenak eta bi esan zituen
Olasagasti aizkolariak aurreko
astean ETB1eko *Anitzele* saioan,
dopinaz.

Euzkitze aurkezleak
hasieran esan zuen txapeldun
handi bat izango zela platoan,
sei aldiz Euskal Herriko
txapeldun, batean munduko
txapeldun...

Elkarrizketa erdialdera,
baina, dopinaz berba egiten
hasi ziren.

Ea dopinik bazegoen herri
kirolean... Eta Olasagastik
baietz, hasi zenetik ezagutu
izan duela dopina.

Horren ildora, lentejak eta garbantzuak bakarrik janda ez dagoela inora joaterik ere esan zuen. Zerbait hartu behar dela, bestela ez dagoela markarik egiterik.

Eta orduan iritsi zen
 Euzkitzeren gaueko galdera:
 "Beraz, zuk ere hartzen duzu
 zerbait.

Eta Olasagastik: "Bai, horixe. Zer ba? Denek hartzen dute zerbait".

Eta Euzkitzek: "Baina kontroletan sekula ez duzu positiborik eman?".

Olasagastik berehala: "Ba,
hor dago koxka. Markak
hartzeko hartzen baduzu,
positibo ez emateko ere hartu
behar duzu.

Euzkitzeren barre algara,
eta txaloak merezi zituela esan,
argi hitz egiteagatik. Eta
publikoak... txalo zaparrada!

Ezin nuen sinistu ere egin
ikus-entzuten ari nintzena.

Jakina, berehala irten da komunikabideetara, esanez berak ez zuela esan aizkolariak dopatu egiten zirenik eta hainbat azalpen emanez...

Ja, eskerrak bideoak hor
geratzen diren, Interneten; esan
zituenak entzun itzazue eta
zuek esango didazue...

Hala ere: zirkismoan, atletismoan... eta herri kirolean ere horrela badago kontua, kirol profesionalik libratzen al da?

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

goienakluba"

Abantailaz betetako kluba!

'Olentzero & CO!' Musikaleko DVDa salgai



DVDaren
preziosa:

13 €

Goiena Klubeko kideentzat prezio berezia:

10 €

Erosi eta zure
etxeko buzoian
jasoko duzu
Goienako klubeko
kide bazara.

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com

www.goienakluba.com

Amaia Gabilondo | Garaion Naturarteako bidelaguna

"Ingurumena zainduz, eraldatuz eta biziberrituz, XXI. mendeko baserritarrak izan nahi dugu"

- Garaion Natuartea elkarteak natura bizitzea du helburu, berarekin artelanak eginez
- Debagoieneko ikasleekin egingo du lan elkarteak urtariletik eta maiatzera bitartean

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Orain dela bi urtetik hona, Amaia Gabilondo Garaion Natuartea elkartearen buru belarri barnertuta dabil bertako lan talde osoarekin batera. Otatza (Araba) herrian daukate egoitza nagusia, utzitako eraikin batean. Inguruko landa biziberritzen dihardute, eta artea egiten dute naturarekin. Hainbat interbentzio egin dituzte, hala deitzen diote naturarekin egiten dituzten artelanei, baina hori baino gehieago ere bada euren egitasmoa. Orain proposamena gizarteratu nahi dute, eta Debagoieneko gazteei luzatu die eskaintza.

Nolatan sortu zenuten Garaion Natuartea elkarteak?

Land Art mugimendua AEBetan sortu zen 60ko hamarkadan, eta haren helburua naturako kontzeptuekin artelanak egitea zen. Korrante horretan oinarrituta, orain dela lau urte hasi ginen landa guneak garatzeko ideia honi bueltak ematen, azkenean hona etortzeko aukera suertatu zitzaigun arte. Duela bi urtetik 12 bat pertsona ibili gara urte guztian zehar lanean. Hemen gaudenetatik asko aisialdi taldeetatik gatoz, eta konkretuki elkartearen sustraiak Txatxilipurdin garatu zirela esan daiteke.

Auzolanaren kontzeptua garrantzitsua da zuentzat, ala?

Bai, kontzeptu hori berreskuratzea eta biziaraztea ere bazen gure helburuetako bat. Sekulako giroa sortzen da hemen, elkar ezagutzen ez duten 40 bat lagun batzen gara, eta lan egiten dugu, ongi pasatuz.

Eta zer da zehazki Garaion Natuarrean egiten duzuen?

Hasteko eta behin, jendearen heziketa garrantzitsua da guretzat. Paisajismoa, proiektugintza, proiektu parte hartzaileak nola garatzen diren... da garrantzitsua guretzat. Gaur egun Otazan hainbat bidelagun dago eta horiek proiektuak egingo dituzte, baina lekuan lekuko jendearekin. Horretarako, urtebeteko ikastaroa jasoko dute. Besteak beste, Aguraingo eskualdean hainbat interbentzio egingo dira. Horrez gain, auzolandegi internazionalak ere egiten ditugu; gazteekin Gazteartearen programa, hau da, gazteak artistak direla sinestarazi; jubilatuekin hainbat tailer ere egiten ditugu...

Eta zein da elkarteak dituen helburuak?

Aisialdiari beste zentzu bat ematea. Oso ongi pasa daiteke herria-



Egun Garaion Natuartea elkartearen dauden hainbat bidelagun, uda honetan egin zuten interbentzioaren inguruan. Kabi handi bat da elkarte hau. | LANDER MUÑAGORRI

rentzako gauzak egiten. Horrez gain, ingurunea biziberritzea eta berarekin bizitzea ere lortu nahi dugu. Era horretan, Otazari bizia ematea lortu dugu, kanpoko jendea etorritik, espazioak sortuz... Gure ingurua zaintzen ari gara bizitzeko aukera berriak sortuz. Hainbat gauza egiten ikasi dugu, azken finean baserritik bizi zaren denetik egin behar izaten baita. *Kalekumeak* baserrira ekartzen ari gara, eta euren jakintza baserriak eskatzen duen bizitzara bat egiten. Horrekin guztiarekin, ingurugiroa zainduz, eraldatuz eta biziberrituz XXI. mendeko baserritarrak izatera iritsi nahi dugu.

Eta filosofia hau noraino zabaldu nahi duzue?

Hasiera batean gizarte osorako izatea nahi genuen, eta auzolanaren kontzeptua garatuz, programa bat sortu genuen hori sustatzeko. Horrela sortu zen Auzolanartearen. Adinen arteko programak egin genituen, baina adinak nahastuta. Ideologikoki gizarte guztia lanean jarri nahi

dugu, herriarentzat gauza politak egiteko. Aurten pentsatu genuen gure esperientzia hau zabaltzeko proba egin behar genuela. Hala, Gipuzkoako Diputaziora joan ginen gure proposamenarekin, eta asko gustatu zitzaion. Orduan, probako esperientzia bat egiteko esan ziguten bertatik.

Eta Debagoienera zatzote.

Halaxe da, bai. Bailarako ikastetxe eta udaletxe guztiak dira partaide egitasmo berri honetan.

"Debagoieneko 16-18 urte arteko ikasleei zabalduko diegu egitasmoa"

"Ikasleak izango dira egingo dituzten interbentzioen ideologo nagusiak"

16-18 urte arteko gazteekin egingo dugu probako esperientzia hau, eta orotara ikasleek Debagoiena osoan hamabost bat interbentzio egingo dituztela aurreikusten dugu.

Interbentzio horiek ikasleek aukeratu dituzte?

Bai. Une honetan gurekin bidelagun dauden pertsona hauek bailarako ikastetxeetara joango dira, eta pentsatzen lagunduko die, erabakiak hartzen. Ideologoak eurak izango dira, eta herrian bertan non egin, zer eta nola euren esku egongo da. Guk hori guztia bideratzen lagunduko diegu.

Zergatik aukeratu duzue adin talde hau?

Gizarteak gazteekiko pertzepzio txarra dauka, ez dutela ezer egiten, pasiboak direla. Guk ez dugu hala uste, eta mito hori apurtzera etorri gara. Iruditzen zaigu sekulako gaitasunak dauzkatela, eta oso ongi prestatutako gazteak dauzkagula.

Eta zer dela eta Debagoieneko gazteak?

Guk Debagoienean eta Arabako lautadan egiten dugu lan. Ustez banatzen gaituen mendikate hau bilgune bat izan da betidanik guretzako. Elgeako mendikateak bildu ditu bere baitan Deba bailara, Arabako lautada eta ia Zerraineraino ere iristen da. Guk horri ondare soziala deitzen dio, eta hori baloreen jartzea da gure beste gogoetako bat. Hemen dauzkagun bidelagunak, gehienak, Arabako lautadakoak dira, eta hauek ikasleen bidelagun izango dira era berean. Era horretan, batzen gaituen zerbait izatera iritsi ahal izango gara. Hau guztia sinbolismo apur bat da.

Eta etorkizunean, zer?

Etorkizunerako hainbat proposamen dauzkagu buruan. Adin talde gehiagorengana iritsi eta zerbitzua eskaini, adin taldeak nahastu, ikastetxeak elkarren artean nahastuta taldeak sortu... Hori guztia Debagoieneko gazteek elkar ezagutzeko helburu garbiarekin egiten dugu. Baina horiek guztiak oraingoz ideiak besterik ez dira.



Jatetxe Gida



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Bereztasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56
www.etxeaundi.com

Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.com

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren
Más Gastronomía 2009 saria.



Unzueta sagardotegia

Zabola z/g / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokiak
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



Uxarte


Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailleak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
- Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

DEKORAZIOA

J. ORTIZ

Bergara

- Mota guztietako pladur lanak
- Igeltsu-lanen dekorazioa
- Sabai eta apaletan espezialistak
- Isolamendu akustikoa
- Gremioen koordinazioa

Alkabieta kalea z/g.

T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behe

T: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 17 80 46

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak

Zigarrola 1- 8 pab.

Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia

Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia

T: 943 79 11 35

F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehiu eta ate isolatzaileak
- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)

Kataide poligonoa 4 Pab.

Tel: 943 77 01 57

F: 943 77 03 21

LOREZAJINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

HERRIAK



Erosle asko egon ziren postuetan.



Umeak amatzok egindako argazkia ikusten.



Kaleak kantuekin girotu zituzten.



Usain ederra zeukan sagarrak.

Bisitariak bai, baina pilaketa handirik gabe

- ▶ Goizeko lehen orduetan egin arren, atertu eta polito joan zen eguna
- ▶ Santamas komisiñoko kideak "oso pozik" daude emaitzarekin



Arrasateko trikitilariak panderoa astintzen.



Erosle bat adi saltzailearen azalpenak entzuten.

M. BIKUÑA / M. BITERI | ARRASATE

Jendea egun osoan egon bazen ere, azoketatik ibiltzeko arazorik ez zen egon atzokoan Arrasateko kaleetan. Goizean goiz euria egin zuen, baina orduak aurrera joan ahala, atertu egin zuen, eta eguerdi partean, bat baino gehiago berotasuna igartzen hasi zen. Eguzki izpiengatik edo sagardoagatik ote zen?

Azoketan banatuta zeuden talo postuetan jende asko batu zen, txorizo usainak erakarrita. Joan den urteko prezio berean saltzen zituzten horiek; hain justu ere, 5 eurotan bakoitza.

Batzuk tabernan zeuden bitartean, familiek eta gaztetxoek animaliak bisitatu zituzten. Idi ederrak edo ahuntzak ez dira egunero ikusten, eta, hortaz, horien aldamenean argazkia atera zuten askok. Neska-mutiko asko zur eta lur egon ziren haiei begira. Animaliez gain, umeen ikusmina piztu zuen beste postuetako bat Jokin Zaitegi plazan zegoen txotxongiloena izan zen. Jirafak, astotxoak eta arrainak izan ziren eskatuenak; 8 eta 10 eurotan saldu zituzten.

350 kiloko txerria

Bestalde, urtero moduan, baserriko produktuak ikusi eta eros-teko aukera egon zen Seber Altube plazan. Besteak beste, sasoiko barazkiak eta frutak, ogia, ez-tia, babak eta gazta erakutsi zituzten baserritarrek. Ondoan, *txarri mobila*-ren barruan 350 kiloko *Motxo* txerria zegoen lo, hark sortzen zuen ikusminaren jabe ez zela. Trikitilari eskolako ikasleak eta joaldunak ondotik pasa baziren ere, mugitu ere ez zen egin *Motxo*.

Seber Altuben baserriko produktuen lehiaketan sari bana-keta egin ondoren, Musakolarantz abiatu ziren apurka herritar asko, 800 bat lagunendako bazkaria gertu zuten-eta kiroldegian.

Balorazio positiboa

Santamas Komisiñoko kideek eguerdira arteko balorazio oso positiboa egin zuten. Beñat Irabalen esanetan, "eguna euritsua izango zela ematen bazuen ere, atertu egin du eta herria jendez lepo bete da. Hortaz, oso pozik gaude".



Ama eta semea, Laubide plazan zegoen behia laztantzen.



800 lagun batu ziren Musakolan.



Sagardoa ederto sartzen zen.



Erakustaldi bikaina egin zuen Iñaki Perurenak. | ARGAZKILARIA: JULIO CALLEJA

Aldaketa gutxi lehiaketan: Etxezarreta eta Lonbide nagusi

Joseba Aranak ogi onenaren aipamena jaso du eta Rakel Perez de Arenatzak barazki ekologikoena

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Ezustekorik ez da egon aurtengo Santamas lehiaketan. Jose Lonbide aramaioarrak seigarren urtez irabazi du barazki lehiaketaren sari nagusia; eta fruta onenen saria, ostera, Gabiriako Maria Etxezarretarendako izan da. Herriko saltokirik onenak ere iazko irabazle berbera izan du aurten: hain justu ere, Maria Asun Iturbe arrasatearra.

Aldatu egin dena aipamen berezien atala izan da. Ogiarena Arrasateko Urkimendi baserriko Joseba Aranarendako izan da; eta barazki ekologikoena, Rakel Perez de Arenatzarendako.

Eguerdi partean Seber Altube plazan zeuden postuetatik ibili ziren udal ordezkariak, sariak banatzen. Saltokietan buru belarri lanean zeudenek gustu handiz jaso zituzten sariak.



Soraluzeko Esozi Etxebarria, udal ordezkariekin. | MIRIAN BITERI

LEHIAKETETAKO IRABAZLEAK

BARAZKI LEHIAKETA

1. Jose Lonbide
2. Esozi Etxebarria

FRUTA LEHIAKETA

1. Maria Etxezarreta
2. Pakea Galdos

HERRIKO SALTOKIRIK ONENA

1. Maria Asun Iturbe
2. Arantza Olabe
3. Jose Iturbe

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

1. Altuna lurrindegia
2. Toñi ile-apaindegia
3. Jose Ramon Otamendi harategia

AIPAMEN BEREZIA: OGIA

Joseba Arana

AIPAMEN BEREZIA: BARAZKI EKOLOGIKOAK

Rakel Perez de Arenatz

MARIA ASUN ITURBE | SARIDUNA

"Halako sariak urte osoan baserrian egiten dugun lanaren ordaina dira eta oso gustura hartzen dira"

Bedoñako Etxeberri baserriko Maria Asun Iturbek herriko saltokirik onenaren saria jaso zuen udal arduradunen eskutik.

Ezustean harrapatu zaitu sariak.

Egia esan, bai. Halako sariak nahiko arduratzen gaituzte baserritarrok. Asko eskertzen dugu, urte osoan egindako lanaren ordaina da-eta. Oso pozik gaude. Izan ere, halako produktuak ekarri ahal izateko urte osoan egiten dugu lan.

Postu luzea jarri duzu?

Bai. Aurten sagar asko jaso dugu, eta metro gehiago eskatu genuen salmentarako. Ezezkoa eman ziguten, baina bate-ren batek kale egin du, eta halako postua jarri dugu. Barazkiak, frutak, arto irina eta beste hainbat produktu ekarri ditugu.

Nola joan dira eguneko salmentak?

Esango nuke aurreko urteetan baino jende gutxiago dabilela. Gure postuen inguruan ez dago masifikazio handirik. Dena den, salmentak ondo doaz. Postura hurbiltzen diren gehienak erostera etorri dira. Alde horretatik ere, oso pozik nago.

Eguraldiak ere lagundu du, behintzat.

07:00etan postua jartzera etorri garenean euria zen. Eskerak atertu egin duen, bestela azokan nabaritu egingo genuke. Halakoetan, ateri badago, askoz hobeto.

Zenbat produktu dituzu?

Ez dugu negutegirik etxean. Hori horrela, garaiko produktuak landatzen ditugu.



Maria Asun Iturbe saria jaso ondoren. | MIRIAN BITERI

JOSEBA ARANA | SARIDUNA

"Jendeak asko estimatzen du baserriko ogia eta, azoka egunaz gain astegunetan ere asko saltzen dugu"

Joseba Aranak saltokian zuen ogiarengatik aipamen berezia jaso zuen.

Pozik jaso duzuen sariarekin?

Egia esan, bai. Sariak eta aipamenak gustura hartzen ditugu, eta baita gaurkoa ere.

Zer dauka berezia zuek egiten duzue ogiak?

Baserriko ogia da. Guk urte asko daramatzagu baserriko ogia egiten, eta bezero fidelak ditugu. Ezagunak gara Arrasaten eta horrek asko laguntzen digu salmentetan. Bestela, guk egiten dugun ogiak ez dauka trukirik.

Ogi asko saldu dituzue?

Ondo joan da eguna. Jende asko estimatzen du baserriko ogia, eta oso ondo saldu ditugu. Baina, astegunetan ere asko saltzen dugu baserriko ogia.

Laguntzaileekin etorri zara.



Joseba Arana, ogia saltzen duen postuan. | MIRIAN BITERI

Azoka egunetan jende asko ibiltzen da, eta laguntza ezinbestekoa da. Lau lagun gabilta ogia saltzen, eta batzuetan ez gara heltzen. Etxean ere beste hainbat lagun geratu dira ogia egiten. Guztion beharra daukagu gaur.

Ogi egin berria saldu duzue?

Goizean egindako ogiak lehen

orduan ekarri ditugu, baina bukatu ahala anaiak ekarri ditugu gehiago. Batzuk bero saldu ditugu.

Ospatuko duzue?


Beno, oraindik lanean jarraituko dugu apur batean, eta dena jaso ondoren, etxera itzuli gara. Gaur jaso dugun aipamena oso inportantea da guretako.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

PUB
HAIZEA



Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Animaliek familien arreta bereganatu zuten; irudian, aita eta semeak txahala laztantzen. | JULIO CALLEJA

Baserritik kalera jaitsi ziren beste behin animaliak

Aurten, lehen aldiz, zaldi txikietan ibiltzeko aukera izan dute etxeko txikiak Laubide plazan

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Urtero moduan, giro ederra egon zen atzo goizean abere eta hegaztien azoka koloretsuan. Familia

asko izan ziren Laubide plazan eta Biteri etorbidean, inguruko baserrietako animaliak ikusten, hala nola, lau arrazako behiak,

idi bi, astoak, zaldiak, behorrak, ahuntzak, zezenak, artzain txakurrak, oiloak eta oilarrak, usoak eta indioilarrak. Animaliak ikustez gain, argazkiak ateratzeko aprobetxatu zuten.

Argazkiak ateratzeaz gain, aurten, lehen aldiz, zaldi txikietan ibiltzeko eta Laubide plazatik bueltatxo bat emateko aukera izan zuten umeek. Nagusiek bitartean, urtero jartzen duten baserriko makinei errepasoa egin zieten.

Artisauen lana zuzenean ikusteko aukera

Pozik daude artisauak, eguna motel hasi bazen ere saldu egin zutelako

M.B. | ARRASATE

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Jokin Zaitegi plazak artisauak hartu zituen; hain justu ere, Euskal Herri osotik iritsitako 40 artisau inguru. Lehenengo orduan jende gutxi bazegoen ere, apurka animatzen joan zen eta eguerdirako zaila zen hainbat postu ikustea.

Eskaintza zabala

Denetarik zegoen: bitxiak, larruarekin eta artilearekin egindako lanak, pilotak, xisterak, abarkak edo oinetakoak, beste askoren artean. Artisauak, orokorrean, pozik azaldu dira jendeak erakutsitako interesarekin eta baita salmentekin ere.



Panpinen postuak umeen ikusmina piztu zuen. | MIREIA BIKUÑA

KALE INKESTA

Zer moduz pasa duzue eguna?



ALAITZ JAUREGI
ANTZUOLAKO ARTISAU

"Lehen aldiz etorri naiz Arrasatera, eta oso gustura nago. Euria atertu du eta jende asko dabil. Giro ona dago, Gabonak harteko jai aproposa, duda barik".



DANEL INURRITEGI
ARRASATEKO ARTISAU

"Ez du hotzik egiten eta jende asko dabil. Gure postura txotxongiloak ikustera ume asko etorri da, eta banaka batzuk saldu ditugu. Egia esan, oso gustura gaude".



MARIASUN ZALOAÑA
ARETXABALETAKO ARTISAU

"Bigarren urtez etorri naiz artisau modura, ardi ilearekin egiten ditugun produktuak erakustera. Batez ere, gure lanbidea erakutsi gura dugu".



KATTALIN ETA ERIK LINAZISORO
BERGARARRAK

"Goizean goiz irten naiz familiarekin. Egun polita izaten da seme-alabekin animaliak ikusteko. Elkarrekin bazkalduko dugu".



JENNIFER GUERRERO
ARETXABALETARRA

"Familiarekin etorri naiz, eta lan egutegiak uzten digun bakoitzeko etortzen gara. Postuak ikusi ditugu, eta orain taloa jango dugu. Giro ederra dago".



PRUDENTZIO LASKURAIN
ARRASATEARRA

"Batez ere goiza aprobetxatuko dugu. Lagunekin etorri naiz eta postuak ikusi ondoren, etxera bazkaltzera joango gara. Talorik ez dut jango, gaztetan asko jan nuen-eta".



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



Adara
ILE-APAINDEGIA

Tel.: 943 08 10 68
Biteri etorbidea 15 behea
adaraileapaindegia@gmail.com
Arrasate

Etorri gu ezagutzera!

'25 urte Arrasate euskalduntzen' DVDa kalean

U.M. | ARRASATE

AEDko bazkideek opari berezia eskuratuko dute datozen egunotan: *25 urte Arrasate euskalduntzen* ikus-entzunezkoa. Izenak dioen moduan, AEDren 25 urteko ibilbidea jasotzen duen lana da hori.

"Ideia sortu zen 25. urteurrenaren bueltan, orain urte bi; ikusten genuen merezi zuela egindako lanak horrelako euskarritxo batean jasotzeak, eta urteotan horrenbeste eta horrenbeste lagundu gaituen bazkideei batez ere, oparitzea; lehenengo hartzaileak eurak izango dira", adierazi du Itxaro Artolak, AEDko dinamizatzailerak.

Datozen egunotan AEDren bulegotik pasatzea besterik ez dago DVDa eskuratzeko (Pablo Uranga kalea, 09:30-12:30 eta 15:00etatik aurrera).

Elkarriketak, argazkiak...

"Bi atal nagusi ditu; batetik, ikus-entzunezko historikoa: protagonisten eta narratzen baten bitartez kontatzen da zela sortu zen AED, zergatik, zeinek... eta egon den bilakara: zela sortu zen Ekin, zela sortu zen Txatxilipurdi... hori guztia kontatuta protagonisten eta zeresan handia izan duten pertsonen ahotan. Bigarren zatia, berriz, argazki galeria da; horrenbeste lagun pasa da, horrenbeste lagundu du bada nahi izan dugula DVDak islatzea herriaren parte-hartzea dio Artolak.



AEDren DVDaren azala. | AED

Iazkoa baino %27 txikiagoa izango da aurtengo aurrekontua

33.079.766,29 euroko aurrekontua proposatu du udal gobernuak 2011rako; hortik 29.700.116,29 euro da Udalaren aurrekontua

UBANE MADERA | ARRASATE

Santamas biharamuna alde batera utzi eta osoko bilkura berezia deialdia egin du gaurko, eguna, udalbatzarrak 09:00etarako, bestelakoan artean, datorren urteko aurrekontuaren gaia lantzeko.

Halakoetan ohi denez, kopuru esanguratsuak aurkeztu dituzte. Baina akaso esanguratsuena da aurrekontuaren kopuruaren jaitsiera: iazkoa baino %27 txikiagoa, edo adibidez, 2008koa baino %70 txikiagoa. "Jarduera ekonomikoaren bat-bateko jaitsiera, herriaren garapena "gerapen" bihurtuta, administrazio guztien murrizpen planak osatzen duten koadroari, orokorrean bizi dugun egoera ekonomiko larria gehitzen badiogu, termino ekonomikoetan behintzat, etorkizun zaila dugula antzeman daiteke", adierazi du udal gobernuak.

Inbertsioak %80 behera

Kopurutan begiratuta, aurrekontu orokorra da 33.079.766 eurokoa; hortik 29.700.116 euro Udalaren aurrekontua da; 3.124.532 Iturbide egoitzakoa eta 1.074.221 euro Aukearena.

%27ko jaitsiera du aurrekontuak, eta horrek, jakina, murrizketak ekarriko ditu.

Amaia antzokia eta Zalduspe

Azpitarratzekoa da, adibidez, inbertsioak %80 jaitsiko direla, dirutan begiratuta, iaz baino 8,96 milioi gutxiago.

100 EUROTİK...

Hona hemen 100 eurotik zenbat gastatuko duen Udalak 2011n:

31,65 euro	Pertsonalean
30,43 euro	Udal zerbitzuetan
19,53 euro	Laguntzak eta transf.
7,79 euro	Zorrak
7,37 euro	Inbertsioak
2,52 euro	Beste administrazio edo erakundeekin inbertsioak

Jarduera nagusiak aipatzearen, honako hauek nabarmendu ditu udal gobernuak: Amaia antzokiko berrikuntzak, kanpoko aldea urbanizatzea eta irisgarri egitea (225.000 euro); Mugikortasun Plana (120.000 euro); eta Zalduspeko urbanizazioa (100.000 euro).

Garraio publikoan indar handia

Eta gastuaren beste zati handi bat garraio publikoa finantzatzeko erabili gura du gobernuak 2011n. Izan ere, bikoiztu egin gura dute herriko urbano zerbitzua, eta hori egiteko diru gehiago behar da: "2010eko urtearen aldean, eta hasieran 380.000 euroko dotazioa izatetik pasatuko da 523.640 euroko aurrekontua izatera. Azken finean, hiri garraio publikoko zerbitzutik bakarrik datorrena da, 2010eko aurrekontuaren aldean, 143.000 eurotik gorako gastuak gehitzea".

Esandako guztia, beraz, ezustekorik ezean, gaur goizean landu du udalbatzarrak. Artikulua idaztean, baina, batzarra egin barik zegoen, beraz, ez dugu jakiterik gobernuaren proposamena onartu duten edo ez.

Olentzero, basandere eta laguntzaileak

Txoronpio eta Txoronpia, Olentzeroren laguntzaileak egin dute biharko, egubakoitza, hitzordua Olentzerorendako gutunak batzeko. 11:40an Munarretik atera eta honako ibilbidea egingo dute: Uribe, San Andres, Musakola, Santa Teresa eta Seber Altube. Aurten, gainera, laguntzaile berria izango dute: Basandere. Olentzerori berari dagokionez, 18:00etan aterako da karroza Bañiez doktoreatik eta 19:00etan iritsiko da Etxaluzera. Gura duten guztiak joan daitezke hari laguntzen, kantuan.



GOIENA

NIRE USTEZ

AITOR IZAGIRRE



Antzerki aukera gurean

Azken asteotan Debagoienean sortutako bi emanaldi ikusi ahal izan ditugun Amaia Udal Antzokian.

Alde batetik hemen ondotik, Bergaratik etorritako *Olentzero & Co.* izeneko musikalaz gozatzeko aukera izan genuen orain pare bat aste.

Bestetik, berriz, Arrasateko Doke antzerki taldeak *Iragana Iragan* izeneko antzezlan taularatu du pasa berri den asteburuan.

Argi dago baliabide aldeetik sekulako aldea egon dela batzuen eta besteen artean, hori horrela da.

Olentzeroko konpainiakoe baliabide tekniko ugari erabili ahal izan dituzte: jantziak, argiak, musika, aktore kopurua...

Dokeko antzezlan ordea, xumea bezain beroa eta gertukoa izan da.

Hori bai, antzezlan biek txundituta utzi naute. Gozatzeko emanaldiak izan dira -eta biak ala biak.

Poztekoa da Debagoiena bezalako bailara batean horrelako bi estreinaldi izatea bi astetako epean.

Esan beharra dago Dokeko lagunak azken urteotan ohitu gaituztela lan ezberdinak tarteka-tarteka plazaratzen.

Olentzero and Co. musikalak izaten dabilen arrakasta ikusita, berriz, apustu egingo nuke, duda barik, datorren urtean ere izango dugula jarraipena.

Beraz, zorionak guztiei, animo zuen lanarekin eta bejon dagizuela denoi!

"Gozatzeko emanaldiak izan dira Olentzero eta Iragana Iragan"

Millaka argitaletxeak eta K3 digitalak

aurkeztuta...

Manolo Cainzos-en
LIBURU BERRIA

Salgai: 10 €



Ane Gorosabel | Ekin Emakumeak elkarteko kidea

"Etorkinek arrasatearrokin bat egitea, hori da jaiaren helburua"

Domekarako, hilak 26, Kulturaliztasunaren Festa antolatu du Ekinek, egitarau zabalarekin; Biteri plazan izango da, 17:00etatik 21:00etara

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Hilabete eta erdi eskas darama Ane Gorosabelek (Arrasate, 1985) Ekin elkartearen. Etorkinen integrazioan laguntzen dihardu, eta "oso gustura" dabilela dio. Hilaren 26an egingo duten Kulturaliztasun Festaren gainean egin dugu berba harekin.
Zein da festaren helburua?
Seigarren edizioa izango da. Festa etorkin eta baztertze egoeran dauden pertsonen zuzendutako proiektuaren barruan kokatzen da. Proiektu horretan euskara eta euskal kulturaren hainbat aspektu irakasten zaizkie, oinarrikoetatik hasita. Etorkinei euren ohiturak ezagutarazteko aukera emango zaie.

Beraz, arrasatearrek ere badute zeresana festa horretan.
Hori da ideia. Etorkinek eta arrasatearrok festa giroan bat egitea da asmoa. Hala, herritar guztiak gonbidatzen ditugu Biteri plaza-
ra; jaia 17:00etan hasi eta 21:00 aldera amaituko da.
Eta asmo hori ardatz, zer prestatu duzue domekarako?
Hainbat ekintza antolatu ditugu. Hurrengo tailerrekin hasiko

"Nahiko itxiak gara etorkinekin ohiturak eta egunerokotasuna partekatzeke"

gara. Gero, etorkinek euren jatorrietako jakiekin egindako pintxoak eskainiko ditugu eta gazta-jana ere prestatu dugu. Musikarik ere ez da faltako; bi taldek joko dute zuzenean: flamenkoa, euskal musika eta musika latindarra nahastean dituen Son Confusion eta Senegalgo eta Euskal Herriko 13 kidez osatutako Harresian Zulo taldeak, hain justu. Azken hauek iaz ere izan ziren. Tartean hainbat tailer izango dira: artisautza eta djembe ikastaroak, esaterako.
Jaiaz aparte, baduzue beste proiekturik epe motzerako?
Urtarrilean sukaldaritza ikastaroa hasiko dugu, eta aurrerago euskara eta euskal kulturaren gaineko beste ikastaro ere egingo



Ane Gorosabel, zapatuko jaiaren kartela ondoan duela. | JOKIN BEREZIARTUA

dugu. Ea taldetxoak sortzen den, interesatu batzuk badaude.
Zein hutsune ikusten duzu etorkinak integratzeko orduan?
Arazo handiak dituzte, batez ere hizkuntzarekin. Senitarteko edo lagun batekin etortzen dira, baina ez dira gehiago integratzen.

Gu nahiko itxiak gara etorkinekin gure ohiturak eta egunerokotasuna partekatzeke; beltzarnak diskoak saltzen eta pakistandarrak jatearekin, horretara gaude ohituta. Bada, zapatuko festa moduko ekimenekin hori aldatzen hastea gura dugu.



BEDOÑA BATU ELKARTEA

Gabonetako kontzertua egin zuten Bedoña auzoan

Bedoña Batu elkartearen eskutik Gabonetako kontzertua izan zen Santa Eulalia elizan hilaren 18an. Antolatzaileen arabera, bertaratu zirenak "oso gustura" irten ziren kantalditik. Oñatiko Ganbara Gazte taldekoek hartu zuten parte eta saioaren ostean auzotarrekin batera egin zuten mokadutxoa eskola-etxean. Hurrengo hitzordua, hilaren 29an: merienda egingo dute haur eta gaztetxoendako, eskola-etxean (17:00).

Gure ikazkin maitatuena opari eta zoriontasuna banatzeko asmoz etorriko da aurten ere

Txoronpio eta txoronpiak goizean gutunak batu ostean, 18:00etan helduko da gurera Olentzero

J.B. | ARRASATE
Bihar, abenduak 24, izango da Olentzeroren egun luzeena. Arrasateetik ohiko ibilbidea egingo du, ez da berritasun aipagarriarik izango. Eta ez dago berritasunetarako beharrik; Olentzero bera da berritasuna, haren presentzia hutsa da albiste.

Txoronpio eta Txoronpia
Olentzero, baina ez da bakarrik egongo etxez etxeko lan mardulerako: Txoronpio eta Txoronpiaren ezinbesteko laguntza izango du. Auzo periferikoetatik hasiko dira gutunak jasotzen: Munar, Uribe, San Andres, Zigarrola eta Santa Teresa. Eguerdia aldera etorriko dira erdigunera; 13:15ean Seber Altuben geratuko dira.

Arratsaldean ongietorria
Olentzero arratsaldean helduko da Arrasateko kaleetara, 18:00etan. San Andres auzotik irten da, urteroko ibilbidea egingo du Herriko plazan amaitu arte. 19:00ak aldera helduko eta Mutik dantza eta Herri dantzarekin egingo diote agurra. Azkenik Dragoialde txarangaren kalejira izango da.
Arrasateko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, bestalde, egitarau propio antolatu du, presoen etxeratzea eskatzeko. Elkartasun denda jarriko dute Arbolapetan, 18:00etan. Gero, 20:00etan, manifestazioa deitu dute Sebero Altubetik, eta azkenik, afalostean, bertso saioa izango da gaztetxean, 01:00etatik aurrera. Herriko bertsolariak hartuko dute parte.

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Berezitasunak
Kazuelatxoak Ogitarteko hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Mauri Zubillaga omendu dute santamasetan

E.M. | ARRASATE

Arrasateko pilota sailaren bultzatzaile nagusietako bat, Mauri Zubillaga (60 urte), omendu nahi izan du Santamas Komisiñuek aurtien. Atzoko pilota jaialdian zen omenaldia jasotzekoa. Hondarribikoa jaiotzez, 6 urte zituela etorri zen familiarekin Gatzagara eta ibarreko pilotako aurpegi ezagunenetakoa bilakatu da urte hauetan guztietan egin-dako lanagatik. 1976an hasi zen herriko pilota sailean. Orain, Hondarribian bizi da eta entrenatzaile postua lagako du, nahiz eta herriko pilotariak gertutik jarraituko dituen. Oraindik ere federatu fitxa dauka eta Gatzagako txapelketa antolatzen du. Pilotari askoren maisu izandakoa, Arrasaterekin, besteak beste, 2007an herri arteko Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen.



Mauri Zubillaga. | GOIENA

IBAI-GANE
janari denda



**Gabonetarako
janari prestatu
bereziak!**

Tel.: 943 77 20 33 Otolara 36 ARRASATE
www.ibai-gane.com

arbolapeta
beinke
arrasate

Joshua Nelson musikariak 'gospel judu' emanaldia egingo du gaur

Kontzertua Arrasate antzokian izango da, 20:00etan; sarrerak 12 eurotan daude salgai

EDU MENDIBIL | BERGARA

Ku Klux Klanaren amesgaiztorik txarrena dator Arrasatera. Halaxe definitzen du bere burua Joshua Nelsonek. Bere taldearekin, Joshua Nelson Singers-ekin batera emanaldia egingo du gaur, eguna, Amaia antzokian, 20:00etan.

Beltzen aurka doan elkarte gaizto horren amesgaiztoa izateaz gain, judua eta beltza da Joshua Nelson eta ibilbide luzea egin du musikan. 13 urte besterik ez zue-nean, *How I Got Over* grabazioa egin zuen. Era berean, Saura Vaughan handiaren hileta elizkizunetan kantatu zuen, haren familiak eskatuta, eta bere emaldi onenen artean 1993an, JVC Jazz Jaialdiaren barruan New Yorkeko Lincoln Centerren eginikoa bereziki gogoan dute Nelsonen jarraitzaileek.

Zalantzarik gabe, lehen aipatutako *How I Got Over* kantua da Nelsonen lan ezagunena: milioi bat eta erdi kopia saltzera iritsi zen eta kantua Stellar Awards sarietarako izendatu zuten bere garaian. Artista askorekin kolaboratu izan du Nelsonek azken 30 urteotan: Aretha Franklin, Wynton Marsalis, Billy Preston eta Stephanie Mills-ekin, tartean. Eta gospelean, besteak beste, Albertina Walker, The Barret Sisters, Hezekiah Walker, Vanessa Bell Armstrong edota Bobby Jones & New Life taldearekin egin ditu grabazioak.

Sarrerak, 12 eurotan

Kosher-gospel musika estiloko aitzindarietako bat dugu. Hain zuzen ere, *The Yankles* filmean (David R. Brooksek zuzendutakoa)



Joshua Nelson Arrasaten izango da gaur. | GOIENA

hartu zuen parte 2009an, kosher abesbatza bat zuzenduta.

Gaurko emanaldirako sarre-rak www.generaltickets.com ata-

rian salgai daude, 12 eurotan. Amaia antzokiko leihatilan ere eskuragarri izango dira, gaurko emanaldiaren aurretik.

Arrasate Musikaleko bandaren Gabon zaharreko kontzertua Amaia antzokian

Aurretik, bandako kideek kalejira egingo dute herriko kaleetatik

E.M. | ARRASATE

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Arrasate Musikaleko bandak emanaldia egingo du abenduaren 31n. Kontzertua Amaia antzokian izango da, 13:00etan. Aurretik, bandako kideek kalejira egingo dute herriko kaleetan, 11:00etatik aurrera.

Bost pieza kontzerturako

Mikel Markiegi da bandako zuzendaria. Gabon zaharreko kontzertuan honako programa eskainiko dute Amaia antzokian: *1812* (Peter I. Tchaikovsky), *Katiuska* (Soro-zabal), *Charles Chaplin* (Philips/Parsons), *Les misérables* (Claude Michel Schönberg) eta *A Christmas dance party* (M. Carros). Emanaldirako sarrera doanekoa izango da eta herritarrei gonbidapena egiten diete antolatzaileek.



Bandako kideak Monterronen. | FOTO IMAGEN

Arrasate Musikaleko banda Jose Ramon Vitoria sortu zuen 1994an. Ordutik hona haziz joan da, partaide kopuruan eta urtero eskaintzen dituen ekitaldietan. Egun, 70 lagun ari dira Arrasate

Musikaleko bandan. Esan bezala, Mikel Markiegi da bandako zuzendaria. Haren aurretik, Eduardo Artzamendi, Jose Ramon Elkoro eta Iker Olazabalek jardun dute zuzendari lanetan.

Argazkiak Kulturaten, ilustrazioak Harresin

E.M. | BERGARA

Naturaren argazkilariak izenburuko erakusketa dago ikusgai Kulturaten. Nazioarteko argazkilarien irudi ikusgarriak jaso dituzte. Laugarren urtez iritsi da lehiaketako erakusketa Arrasatera. Iaz, harrera bikaina jaso zuen, Udaleko ordezkarien arabera 3.000 bisitari inguru jaso baitzuen naturako argazkien erakusketak. Urtarrilaren 16ra arte egongo da, martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.


Bestetik, *Desentsazio trazuak* erakusketa dago ikusgai Harresi aretoan, urtarri-laren 31ra arte. Desegin-en 12 ilustrazio daude han, Euskal Herriko hainbat toki esanguratsutakoak.

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko
sistema berri eta pertsonalizatua*



Gubi

ILE APAINDEGIA
Otolara Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74



Arrasaten, giro ezin hobe!



Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Ametz ✱ Bengoa ✱ Branka ✱ Ederra ✱ Iamai
Itzala ✱ Lora ✱ Monte ✱ Okoretegi ✱ Rumba ✱ Txoko

Bideberri, Kruz Gallastegi eta Irala ere TAO sistemaren barruan

Ordubete luzatuko da zerbitzua, 21:00ak arte; aldaketok martxoan sartuko dira indarrean

M.B. | BERGARA

Astelehenean egindako osoko bilkuran TAO zerbitzua arautzen duen ordenantzari bi aldaketa egitea onartu zuen udalbatzak aho batez.

Aldaketon arabera, batetik, Kruz Gallastegi, Bideberri eta Domingo Irala kaleak TAO gunean sartuko dira, eta, horrekin batera, Mastarrekako bizilagunei ere erresidente izaera aitortuko zaie.

Bestetik, TAO sistemaren ordutegia ordubete luzatuko da; hau da, 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara izango da ordutegi berria aste-gunetan. Zapatuetakoa, berriz, mantendu egingo da; hau da, 09:00etatik 13:30era.

Horrekin guztiarekin, eta prozedura administratiboak

ezartzen dituen urratsak eta epeak direla-eta, aldaketok ez dira indarrean sartuko martxo hasierara arte.

Balorazioaren ondorio

Udal Gobernuak -herritarrek egindako bileretan agindu bezala- TAO sistemaren lehenengo hiru hilabeteetako balorazioa egin du. Era berean, banan-banan aztertu ditu herritarrek egindako eskaerak eta baita TAO sistemaren kudeaketaz arduratzen den enpresak emandako datuak ere. Bada, hori guztia aintzat hartuta erabaki du esandako bi aldaketok egitea eta udalbatza osatzen duten alderdi guztiek -Gobernu taldea, EAJ, PSE-EE eta EA- bat egin zuten astelehenean erabaki horrekin.

Olentzero eta Mari Domingi 19:00etan iritsiko dira bihar

Gabonetan askotariko ekitaldiak egongo dira; baita presoen aldekoak ere

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bihar, egubakoitza, iritsiko da Olentzero herrira, Mari Domingirekin batera. 19:00etan, gurdian, eta honako ibilbidea egingo dute: Udal Biltzetik abiatuta, Mastarrek, Bideberri, Ibargarai, Herri-lagunak, Domingo Irala, Irizar eta Barrenkaletik igaro ondoren, San Martin plazan bukatuko dute. Ibilbidean zehar hiru bat geldialdi egingo dituzte, jende gehien batzen den hiru bat gunetan, eta haiekin batera bidea egingo du abesbatza batek -egun horretarako espresuki hainbat herritarrek osatutako abesbatza- Gabon kantak abestuz.

Olentzerok eta Mari Domingik umeei agur esan aurretik, udaletxeko balkoian hitz batzuk egingo dituzte.

Ume eta gazteendako ekintzak

Ume zein gazteendako ekitaldi asko egongo da Gabonetan. Besteak beste, urtarrilaren 2an, Taun Taun taldeak 4 urtetik gorako umeendako txotxongilo emanaldia egingo du Zabalotegi aretoan, 18:00etan.

Urtarrilaren 3tik 5era Gabonetako jolasparkea egongo da Udal Pilotalekuan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara (kabalgata egunean 19:00ak arte). 2 urtetik 10 urtera arteko umeendako da eta askotariko jolasak egongo dira. Eguneko sarrerak 3 euro balioko du eta hiru eguneko bonuak, 7 euro.

Urtarrilaren 5ean, Bizarzurik umeen gutunak batuko ditu udaletxean, 17:00etan, eta 19:00etan Errege Magoak iritsiko dira.

Gazteendako ere bai

Urtarrilaren 5erako, 14 eta 18 urte arteko gazteendako tortilla lehiaketa eta koadrilen afaria antolatu ditu Gazteria Sailak, Munibe plazan jarriko duten alkohol bako gunean. Afaldu eta gero, Trakets taldearekin erromeria egongo da, 22:30ean. Kontuan hartzekoa da Muniben afalduko duten gazte koadrilek mahai eta aulkiak erreserbatu behar dituztela kultura etxean hilaren 27a baino lehen.



Eva eta Noelia Gartzia, Ander Berraondo eta Uzuri Alvarez. | M.B.

Erakusleihen sariak banatuta

Gisasola burdindegia jaso du Udaleko Kultura Sailak antolatzen duen Gabonetako erakusleihen lehiaketako lehen saria (300 euro eta garaikurra). Bigarrena Ziburu umeen jantzi-dendak jaso du (250 euro eta garaikurra); eta hirugarrena, Igarza mertzeriak (200 euro eta garaikurra). Irabazleek "oso pozik" jaso dute.

OHARRAK

ESKERRAK EMAN NAHI DITU ARANZADI IKASTOLAK

Aranzadi ikastolak eskerrak ematen dizkie herritarrei, Argentinarako eskatutako jostailuen eta oinetakoen bilketan azaldu duten elkartasunagatik.

MURUAMENDIARAZ EGUREN FAMILIA ESKERTUTA DAGO

Muruamendiaraz Eguren familiak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei haien alaba Magaliren tratamenduaren harira erakutsi duten interes eta jarre-ragatik. Magali, garun errehabilitazio neurologikoaren beharra duenez, tratamendu bat jasotzen ari da Galiziako zentro espezializatu baten, eta gastuei aurre egiteko loteria guztia saldu du familiak.

PATINATZERA IRTEERA ANTOLATU DU UDALAK

Gazteria Sailak antolatu du irteera, urtarrilaren 3rako, 12 eta 16 urte artekoendako. Donostiako Txuri Urdin izotz jauregira izango da irteera. 15:00etan abiatuko da autobusa eta 21:00etan izango dira bueltan. Prezioari dagokionez, 12 urtekoek 7 euro ordainduko dituzte eta 13tik gorakoek, berriz, 9 euro. Izena emateko mugaeguna bihar da, egubakoitza, 943 77 91 60 telefono zenbakian edo kultura@bergara.net helbidean.

ZAPATUAN ITXITA EGONGO DA AGORROSIN

Zapatuan, Eguberri eguna, itxita egongo da Agorrosin Ekintza Gunea.

SUBiJAI

Umeentzako moda

Eskerrik asko, urte hauetan gurekin izateagatik!


Gabon zoriontsuak, guztioi!

DENDAK ZABALIK
segituko du.

943 76 42 41

Irizar pasealekua 1 - BERGARA

SIRIMIRI
JATETXEA



Abenduaren 25 eta Urtarrilaren 1ean
Arratsaldetik aurrera
ZABALIK

MENU BEREZIAK

Barrenkale 3 - BERGARA
943 76 59 19

MERKA-OXIRONDO

Azokan, zure fruta-denda berria



696 84 19 51
Oxirondo plaza | Bergara

KIRKOS
SEXOLOGIA ZENTROA

Sexologia: Edu Reguero (AEP5 421. zenb.)

- > Bikote-terapia
- > Gurasoentzako aholkularitza
- > Sexuaren eta elkarbizitzaren zailtasunak
- > Eiakulazio goiztiarra
- > Desira falta
- > Inpotentzia
- > Baginismoa

Elizkale 13 solairuartera ez. - 630 287 321
ZUMARRAGA

"Udal gobernua oso haserre dago Aldundiak hartutako erabakiarekin"

- ▶ Alkatearen hitzak dira, Aldundiak permuta ez aurreratzea erabaki duelako
- ▶ Gai horri eta beste hainbati buruz egin du berba Goiena Telebistan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Agintaldia bukatzeko sei bat hilabete falta direla, Agurne Barruso alkateari elkarrizketa egin diote asteen Goiena Telebistako *Magazinea* saioan. Gai askoren gainean jardun zuten eta horietako bat izan zen Seminarioa-Arrizuri trukea. Hain justu ere, Maria Jesus Aranburu Kultura eta Euskara diputatuak duela bi aste eskas esan zuen Batzar Nagusietan egindako agerraldian, Aldundiak ez duela truke hori 2011ko iraila aurretik hartuko.

Barruso alkateak, Diputatu nagusia eta UNED patronatuko lehendakaria Markel Olano dela zehaztu eta gero, zera esan zuen Aranbururen hitzen harira: "Muzin egin diote, bai Bergarako udalbatzak alderdi guztien adostasunarekin –euren alderdiarena izan ezik– egindako proposame-

nari eta baita, Batzar Nagusiek –berriz euren alderdiak eta Hamai-kabatek izan ezik– egindako eskaerei. Hortaz, garbi esan daiteke ez diela axola zer esaten duen inork, alderdi interesak tartean daudenean. Nahiz eta gero, herriz herri ibili kudeaketa eredu berri bat aldarrikatzen". Eta gehitu zuen: "Udal gobernua oso haserre dago hartutako erabakiarekin, izan ere, gauza bat da gustuko erabakia hartzea ala ez, baina beste bat da inori kasurik ez egiteko prepotentzia hori erakustea".

Aldundiaren erabakiaren aurrean zer egingo duten ere azaldu zuen: "Orain guztioi tokatzen zaiguna da birkokatzea. Trukearen erabakia aurreratze-ko askaria egin genuen Batzar Nagusietan Aralarren bitartez, eta erantzuna jakin dugu duela egun batzuk. Orain, tokatzen

zaigu pentsatzea egoera honen aurrean zein izango den gure jarrera: alde batera laga, edo beste bide batzuetatik hori bultzatu". Izan ere, "trukearen ezezko horren aurrean Udalak Seminarioko elizarekiko daukan interesa ere aztertu egin beharko du. Igual eliza bakarrik ez delako interesgarriena herriarendako".

Udalak izan dezakeen etorkizuneko plangintzan ez ezik, Aranzadi ikastolaren ere badu eragina erabakiak. Hain justu ere, egokitze lanak egiteko zain dago ikastola eta astelehenean egindako Uned patronatuaren batzarrean gai horren gainean berba egin zutela azaldu zuen Barruso alkateak: "Aranzadi prekariora dago; ez dago inongo konstantziarik inon, Aranzadi Seminarioan dagoenik eta Unedek hainbat metro laga dionik. Horregatik, patronatuaren batzarrean



Barruso Goiena Telebistan. | E.A.

planteatu genuen lehentasunezkoa dela Aranzadiren egoera erregularizatzea. Batetik, erregularizatzea bera delako ona eta bestetik, Aranzadik obrak egin ahal izateko".

Eguneko zentroa zabaltzeaz

Handitze eta egokitze lanak otsailan bukatu zituzten arren, oraindik ere ez du zabaltu Aldundiak eguneko zentroa. Horren gainean galdetuta, alkateak esan zuen abenduan zabalduko dutela: "Aldunditik jakinarazi digute erabiltzaileak dagoeneko abenduan etortzekoak direla eguneko zentrorra, hau da, ateak zabaltzeaz dituela eta dagoeneko kokatuta daudela orain arte Antzuolako zentrorra joaten ziren erabiltzaileak, eta baita itxaron zerrendan zeudenak ere. Inaugurazio ofiziala urtarrilean egingo dutela ere aurreratu dute".


Alkategai izango zara?

Datozen Udal hauteskundeetan alkategai izango ote den ere galdetu zioten Barrusori *Magazinea*-n: "Bada, hori, neuk eta Bergarako ezker abertzaleak erabaki beharko dugu eta oraindik ez dago ezer erabakita. Orain arte zentratu gara beste gauza batzuetan: herriko diagnostikoa egiten, edukiak lantzen... eta Udal hauteskundeetarako ze talde osatuko den bigarren fasean etorriko da. Izan ere, alkategaiarekin batera zinegotziek osatzen dute zerrenda. Urtarril aldera hasiko gara hori osatzen".

"Ez die axola zer esaten duen inork, alderdi interesak tartean daudenean"

"Aldunditik esan dute abenduan zabalduko dutela eguneko zentroa"

"Ez dago erabakita alkategai izango naizen; urtarrilean hasiko gara horrekin"



BERGARA

PNEUMATIKOAK

**GABON
ZORIONTSUAK,
GUZTIOI!**

ZERBITZUAK

- Marka guztietako pneumatikoak oso merke.
- Balazta-pastillen aldaketa.
- Olio eta filtroen aldaketa 60 €-tik aurrera.

Zure ezkontzarako autoa ekarri, eta apaindu egingo dizugu!

GARBIKETAK

- Eskuz egindako barne eta kanpo garbiketa 15 €.
- Eskuz egindako kanpo eta barne garbiketa (eserlekuak barne) 45 €-tik aurrera.
- Eserlekuetako edozein orban kentzen dugu (larrua ere bai).

Amillaga 6 BERGARA
Tel./Faxe: 943 76 36 27
bergarapneumatikoak@gmail.com

ORDUTEGIA
08:30-13:00 / 15:00-20:00
Zapatuetan: 09:00-13:00

Kultura aretoaren proiektu urbanistikoa definitzen hasiko dira urte hasieran

- Erabilera askotako kultura aretoa zelakoa izango den definituko dute
- Jarraipen batzordea osatuko du Udalak kultur eragileen artean
- Agintaldia amaitu aurretik proiektu urbanistikoa bukatuta nahi dute

ENEKO AZKARATE | BERGARA

"Pena da Amaia moduko areto bat Bergaran ez edukitzea. Bergaran sekulako maila daukagu". Horrelaxe, gazi-gozo, mintzatzen zen emakume talde bergararra joan zen abenduaren 11n, 'Olenzero&Co!' musikala estreinatu berritan. Eta haiek bezala, aste-buru hartan Amaia antzokira, aurrekoan Eibarko Coliseora edota abenduaren 30ean Donostiako Kursaalera hurbilduko diren ehunka bergarar.

Izan ere, denek, zale zein agintari, onartzen dute Bergarak gabezia handiak dituela kultura ekipamenduen aldetik, batez ere formatu handiko antzezlan edo musika ikuskizun klasikoetarako. Horietako asko, Bergaran sortu eta bergarar taldeek eskainiak: Udal Musika Bandaren edo Orkestra Sinfonikoaren emanaldiak, *Miserableak*, *Oliver!*, *Seussen mundua* edo *Olenzero&Co!* bera.

Areto barik

"Azkeneko 30 urteotan okerrera egin dugu. Desagertu egin dira Irala, Novedades, Mariaren Lagundia edota Seminarioko aretoak, eta San Pedro elizan ere ezin daitezke egin sasoi batean egiten ziren Gabonetako kontzertu handiak. Ostera, tradizio handiko musika taldeek jarraitzen dute eta berriak sortu dira musika eskolari esker". Valen Moñuxen berbak dira. Bergarako orfeoiko kide da eta herritik bultzatu diren musikal gehienen buru. Joan zen martxoan, etorkizuneko erabilera askotako aretoa definitzeko Bergarako Udalak antolatu zituen batzarretan parte hartu zuen.

Gaur egun Bergarak bi agertoki ditu kultura eskaintzarako, Jam aretoa eta eliza batzuk alde batera lagata: Udal pilotalekua eta Zabalotegi aretoa.



Udal pilotalekua ia beteta (800 bat lagun), joan den zapatuko Gabonetako kontzertuan. | JULIO CALLEJA

Seminarioko auditorioa

Aurreko agintaldian Udal gobernuak bazuen auditoriorako proiektu bat. Iñaki Aspiazuk eta Xabier Ilegik egindakoa. Errege Mingetikiko eliza 400 bat lagunendako auditorio bihurtzea proposatzen zen. Horretarako, kristalezko atabaka moduko bat sortzen zuten ondarea babesteko, eta kutxa handi berria atzealdean, jolastokirantz, kutxa eszenikoa izango

zena. Proiektuak zuen 222.469 euroko aurrekontua; horri gehitu beste 26.000 euro aholkularitza teknikoagatik eta beste 6.565 elizaren erretaula desmuntatzeko. Auditorioa egitea 8 milioi euro kostatuko zela aurreikusi zen.

Baina auditorio hark gabezia handiak zituen, besteak beste, txiki geratzen zelako eta ondareari kalteak egiten zitzaizkiolako, herriko kultur gile gehienek


aitortu dutenez. Oraingo gobernuak proiektua baztertu zuen eta proposatu zuen Miguel Altuna zaharraren orubea, Seminarioren jolastokiaren ondoan dagoena, etorkizuneko erabilera askotako aretoarendako. Izan ere, erdigunean egoteaz gain, aurki orube hori libre geratuko da Miguel Altunak ikastetxe berria izango duelako Artabilan.

Rafa Amasorrain Bergarako

Dirua ez da izango muga eta premiak hartuko dira aintzat proiektuan

Kultura aretoa noiz egingo den ez dago jakiterik; krisi egoerak baldintzatuko du

Miguel Altunak utziko duen orubea da kokapen egokiena



Valen Moñuxek kultura aretoa zela irudikatzen

EAJren bozeramailea ados dago Miguel Altunaren kokapenarekin, baina zalantzan jartzen du horrelako proiektu bat egingarria izango den hurrengo urteetan, bizi dugun egoera ekonomikoa dela-eta.

Batzar irekiak

Esan dugun moduan, martxoan batzar irekiak egin ziren hiru jardunalditan etorkizuneko erabilera askotako aretoa definitzeko. Ondorio hauetara iritsi ziren batzarren ostean: Bergarak behar zuen 600-800 lagunendako lekua eta kamerinoak izango dituen erabilera askotariko antzokia –hori espazio nagusia–, eta eragile kulturek entseatzeko gelak, kontuan izanda jarduerak –musika, antzerkia, dantza...– eta tamaina handiko jarduerak direla, gainera –instrumentu handiak, abesbatza handiak, dantza akademika...–


Proiektu urbanistikoa

Bestalde, Bergarako Udalak konpromiso bat hartu zuen: agintaldia amaitu aurretik proiektu urbanistikoa amaituta edukitzea eta, bestetik, proiektu hori egiteko jarraipen batzordea deitzea. Bi konpromiso horiek berretsi dituzte oraingo astean Agurte Barruso alkateak, Goiena Telebistan, eta Enara Minguez Kultura zinegotziak. Azken honek esan du "urte hasieran abian" jarriko dutela etorkizuneko erabilera askotako antzokia diseinatzeko jarraipen batzordea. Minguezek zehaztu du dirua ez dela izango muga proiektua idazterakoan: "Bergararendako eta bergararren premietarako egokiena den erabilera askotako antzokia diseinatuko dugu".

Rafa Amasorrainen (EAJ) ustez agintaldi amaiera honetan hartzen diren erabakiak ezin daitezke izan hurrengo agintaldietan etor daitezkeen agintariendako zama edo erabaki lotesle, "hurrengo datozenek erabakiko dute zer egin" dio.

120 besaulkitik 800era

Martxoan herritarrekin egin ziren batzar haietan, egoeraren diagnostikoa eta premien gaineko aurkezpena egin zuen Valen Moñux Bergarako Orfeoiko kide eta lanbidez aparejadorea denak.



duen. Goitiko ikuspegi orokorra. | VALEN MOÑUX



Beste ikuspegi bat, kutxa eszenikoa nabarmentzen delarik. | VALEN MOÑUX



Irala kaletik zela ikusiko litzatekeen. | VALEN MOÑUX



Eta Fraiskozuritik. | VALEN MOÑUX

Kulturgileek nabarmendu dute aretoaren beharra

MIRIAN BITERI / MIREIA BIKUÑA | BERGARA

ITXASO AZKARATE | TAUN TAUNEKO KIDEA

"Orain dela 20 urte gauza gehiago zegoen herrian"

"Bergarak urteak daramatza toki egokirik barik eta erabilera askotako antzoki baten premia igartzen dut. Bergaran, orain dela 20 urte, gaur egun baino kultura ekipamendu gehiago zeuden. Oso penagarria da atzera joatea. Lehen Irala zinematik eta Novedades aretoa zeuden. Zabalotegi aretoa oso polita geratu da, 120 eserleku inguru ditu eta lan polita egiten du. Baina, gutxi da. Aukera asko eskaintzen dituen aretoa behar dugu. Musika eta antzerkirako aretoaz gain, gelak ere egon beharko lirateke. Oso inportantea da topatzeko gune bat edukitzea"

MIKEL IBARTZABAL | KUKUMAKO KIDE IZANDAKOA

"Lehentasunezko proiektua izan behar da"

"Kultura ekipamenduei dagokienean, ezer ez dagoen herri batean lehentasunezko proiektua izan behar da. Beste gauza batzuek lehentasun handiagoa daukate, baina kultura lantzeko horrelako gune bat behar dugu. Zabalotegi aretoa dago baina 100 pertsonatik gora ezin dira sartu. Erabilera anitzeko areto bat behar du Bergarak. Kulturarekin lotutako talde eta ekitaldi guztiak sartu beharko lirateke hor; tartean, musika, dantza, antzerkia... Denondako gune bat. Horretaz aparte, tailerrak eta elkartzeko tokiak egingo nituzke, mugimendua sortzeko".

ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE | BANDA KO ZUZENDARIA

"Agian ez da une egokia, baina beharrezkoa da"

"Krisian gaude eta, hortaz, ez dakit orain momentu egokiena izango den horrelako proiektu bat martxan jartzeko. Baina, argi dagoena da beharra dagoela. Aspaldiko premia bat da. Behar kultural guztiak asetzeko gauza den auditorioa egingo nuke Bergarakoak eta baita Bergara kanpokoak erakartzeko ere. Askotan, tamaina handiko taldeak (esaterako, antzerki musikalak eta zarzuelak) ekarri nahi izan dira eta ez da tokirik egon. Elizetan egin behar izan ditugu horrelakoak, eta toki horiek ez dira egokiak kontzertuak eskaintzeko".

EUGENIO PELIKANO | GOIKOROCK-EKO ARDURADUNA

"Beste batzuekin alderatuta, atzeratuta gaude"

"Ez dakit Bergarak ze beste behar dituen, baina argi daukat halako areto baten beharra dugula. Debagoieneko beste herri batzuekin alderatuta, atzeratuta gaude. Erabilera askotako antzokia beharko genukeela uste dut, funtzionala, gaua asko antolatu ahal izateko: rock kontzertuetarako, musika klasikorako, antzerki emanaldietarako eta berbaldietarako. Areto berria egin behar badute, behar den modukoa egin dezatela. Edukierari dagokionean handia izan beharko luke. Zabalotegi aretoa dotorea da, baina ikuskizun batzuetarako txikia da".

FERNANDO ETXABARRI | HONTZA PRODUKZIOAK

"Miguel Altuna ez zait leku aproposena iruditzen"

"Miguel Altuna ez zait leku aproposena iruditzen. Lehengo Mariaren Lagundian kokatuko nuke. Lurrazpiko aparkalekua egin nahi dute Seminarioan eta gainean auditorioa. Hori horrela, auditoriora datorrenak aparkalekuan utziko luke autoa eta zuzenean igoko litzateke aretora, Bergaran ibili barik. Mariaren Lagundian egiten badute, lurrazpiko aparkalekuan autoa lagatzen duenak, kalerik kale joan beharko du aretoraino. Antzerki emanaldia ikusteko Elorrio, Bilbo, Eibar edo Donostiara joan behar dugu. Areto dotorea beharko genuke. Debagoienean aitzindaria izan beharko luke".

AMAIA MARKO | BERGARAKO ORFEOIKO PRESIDENTEA

"Gutxienez Arrasateko Amaia antzokia bestekoa"

"Kokagune egokia iruditzen zait Miguel Altunako orubea, erdi-erdian dagoelako eta, gainera, aparkalekuak jar daitezkeelako Seminarioaren jolastokiaren azpian. 20 urte daroatzagu ezer barik eta ordua da! Gutxienez Arrasateko Amaia antzokiak daukan besteko tokia izan beharko luke areto berriak. Era askotako ikuskizunak antolatze modukoa: Orkestra sinfonikoarenak, Orfeoarenak, antzerkia, zinema... Formatu txikiagoetara egokitzeko modukoa izan beharko litzateke. Eta batzarrak eta berbaldiak egiteko, kultura taldeendako lokalekin...".

Haren ustez, ondoko erabilpen ezberdinak izan beharko lituzke etorkizuneko aretoak.

Bestalde, Hego Euskal Herriko aretoen gaineko azterketa egin zuen. Antzokietako besaulkien arabera, 56 herriko zerrendan, Bergara agertzen zen 52. postuan, 120 besaulkirekin, Antzuola moduko herrien atzetik. Eta proposatzen zuen, biztanleriagatik, herriko kultura talde kopuruagatik eta tradiziogatik, 10. postu inguruan kokatzea, Tolosa, Eibar, Arrasate edo Eloreioren parean, 800 besaulkiko aretoarekin.

Aurkezpenean, Bergarako etorkizuneko aretoak ze ezaugarri izan beharko lituzkeen ere aipatzen zuen Moñuxek. Aretoa bi solairukoa izatea proposatzen zuen eta ezinbestekoa ikusten zuen antzokia eraikitzea, hau da, antzerkia egiteko kutxa eszenikoa egitea. Eta proposatzen zuen ezaugarri hauek izango zituen eszenatokia: 15 metroko ahoa, 12 metroko sakonera eta guztira 270 metro azaleran. Moñuxek proposatzen zuen aretoaren edukiera mugatu edo egokitze sistemak ere edukitzea aretoak, eta aztertzea eszenatokia rock kontzerturako erabiltzea. Azkenik, fotomuntai batzuk ere erakutsi zituen (goian) etorkizuneko erabilera askotako antzokia Migel Altunaren orubean irudikatze.

Agintaldi honetarako definituta geratuko da Bergarako erabilera askotako aretoa. Ikusiko da, ordea, aretoa noiz egongo den prest. Krisi denborak ez du erraztuko bergararren ametsa egi bihurtzea.

INPRIMATEGIA

GARBIL

PAPERDENDA

Artzamendi 4 20570 BERGARA
imprentagarbil@euskalnet.net
T. 943 76 23 28 - F. 943 76 54 87

Offset inpresioa eta digitala • Ezkontza-gonbidapenak • Egutegiak • Heriotza-oroigarriak • Koadernaketak • Zigiluak • Bulegorako materiala

Kolorez betetako 2011 izan dezagun!

Gabon jai zoriontsuak!



Beteranoen kontra jokatu dute Bergarako mutilek 26an. | GOIENA

Seniorren eta Bergarako 'izarren' arteko Gabonetako partidua hilaren 26an

Lagunarteko torneoaren ostean poteoa egingo dute, eta afaria ondoren

XABIER URTZELAI | BERGARA

Abenduaren 26an lehengo eta oraingo eskubaloiz jokalariaiek elkartuko dira Labegaraietan,

Gabon giroan lagunarteko torneoak jokatuko. Beraz, oraingo seniorrak eta garai bateko *izarrak* izango dira zein baino zein gehia-

ESANAK

"Jende kopuruaren arabera antolatuko ditugu taldeak; ea hiru talde osatzeko jendea dugun"

GORKA UGALDE | ANTOLATZAILEA

go: "Lehengo eta oraingo jokalariaiek batzea da asmoa, eta euren artean pike txiki bat sortzea. Azken urteotan egin dugu torneoak, eta hitzordu polita da", adierazi du Josetxo Muniategik.

Deialdia, baina, ez dago itxita; torneoak antolatzen dabilen lagunetako bat da Gorka Ugalde, eta deialdia erabat irekia dela adierazi dio Goienari, ez dagoela jokalariai ohiei mugatua. Gazte zein nagusi, neska zein mutil, denendako lekua egongo dela: "Eskubaloian jokatzea nahi dutenek nahikoa izango dute hilaren 26an, 16:00etan Labegaraietan egotearekin. Jende kopuruaren arabera antolatuko ditugu taldeak, eta iaiz moduan, aurten ere gutxienez hiru talde osatzea espero dugu".

Ondoren, afaria

Torneoa jokatu ostean poteoan joateko proposamena egin dute eskubaloiz taldeko ordezkariak, ondoren afaria egingo dute-eta. Afarirako, baina, komeni da izena ematea, eta horretarako nahikoa izango da *bergaramano@gmail.com* helbidera mezu bat bidaltzearekin.

Bergarako Orfeoiak eta Gabero abesbatzak emanaldia gaur

X.U. | BERGARA

Bergarako Orfeoiak eta Gabero abesbatzak emanaldia egingo dute gaur, hilak 23, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan. Hala, emanaldi berezia izango da, urtean zehar hil diren orfeoikideei eskainiko diete-eta gaurko kontzertua. Bereziki, duela gutxi hil diren Miguel Moñux, Jose Mari Juldain eta orfeoiko zuzendari izan zen Jesus Berroyari.

Horrekin batera, baina, kontzertuak beste berezitasun batzuk ere izango ditu: "Emanaldi ia osoa elkarlanean egingo dugu Gaberok eta orfeoiko kideek. Hiruhileko osoa darabagu entseatzeko, eta, egia esan,

hilabete intentsuak izan dira, tartean izan dugulako *Olentzero & Comp.* lana; eta, noski, Gabonetako kontzertua ere entseatu beharra zegoen. Baina guretako Gabero abesbatza harrobi ederra da, eta eurekin batera emanaldi bat egin nahi genuen, harremanak sendotzeko", adierazi du Karlos Etxanizek.

'Roquiem'

Gaurko emanaldia berezi egingo duen beste osagai bat da obra berezi bat abestuko dutela: "*Roquiem* izena du, hain zuzen, requiema eta rocka bateratzen dituelako".

Hilaren 26an hasita umeendako antzerki emanaldiak izango dira Gabonetan Zabalotegin

Gabonetan gaztetxoak entretenituta ibiltzeko moduko hitzorduak izango dituzte Zabalotegiko aretoan. Hilaren 26an, domeka, 4 urtetik gorako haurrendako aproposa den *Azken portua* izeneko antzezlanak egingo dute. Hilaren 27an, astelehena, berriz, Antzekizuna taldekoen *Teleipuna* lana egongo da ikusgai. Hilaren 28an, martitzena, Txoborro magoaren emanaldia izango da. Eta, hilaren 30ean, eguna, *Harritxu Maritxu* izeneko antzezlanak izango da. Emanaldi guztiak 18:00etan hasiko dituzte (3 euro).




GOIENA

Musika Eskolakoak, bikain

Gabonei ongietorria egiteko Musika Eskolako neska-mutikoen kontzertu ederra eskaini zuten joan den egubakoitzean Udala Pilotalekuan. Bertan 400 ikasle inguru batu ziren, eta haurren abesbatzakoak ere egon ziren, nahiz eta erabat arrakastatsua izan den *Olentzero & Comp.* lana egiteko denbora behar izan duten.

Patinatzen ikasteko aukera emango du Hanka Labankak Gabonetan



Iturgintza
Beregintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 94 39 18

X.U. | BERGARA

Hanka Labanka patinatzaile taldeak aurten denboraldi bukatu ondoren 29 eta 30erako. Abenduaren 29an ate irekiak egingo dituzte Labegaraietako kiroldegian, goiz eta arratsalde (10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara). Edonor, handi zein txiki, joan ahal da Labegaraietara: irristatzen ikastera, jolasetan parte hartzea, erortzen ikastera, hockeyan jokatzea... Horretarako, zailtasun txikiko zirkuituak egingo dituzte konu, uztai eta bestelakoekin. Hala,

Hanka Labankaren helburua da bergararren artean zaletasuna ahalik eta gehien zabaltzea, eta helburu horrekin antolatu dute ate irekien jardunaldia.

Hilaren 30ean hockeya

Aurreko eguneko patinaje saioen ostean, hilaren 30ean, eguna, hockey partidua egingo dira ikusgai Labegaraietako kantxan –inoiz ez da Bergaran horrelakorik antolatu–. Hala, Bergarako Hanka Labanka taldeko kideak eta Basauriko Basroller taldekoak izango dira zein baino zen gehiago.

11:00etan hasiko dira partiduko jokatzeko, eta 13:00ak bitartean ibiliko dira. Hala, partiduko jokatze bosteko taldeak osatuko dituzte.

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urate 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, beheka • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarkeak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Gehiengoaren ustez armarria aldatu egin beharko litzateke

- Kudeatuz programaren bitartez landu dute gaia hainbat herritarrek
- Egungo baloreak identifikatu eta armarriarekin alderatu dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Udalak Aldundiarekin elkarlanean bultzatu duen parte-hartze prozesuaren ondorioa da armarrarian jasotzen diren irudiak egungo baloreekin ez datozela bat eta armarria aldatu egin beharko litzatekeela.

Baloreak identifikatu dituzte

Antzuolarren identitate kolektiboa osatzen duten baloreak ondoakoak direla lehenetsi dituzte parte-hartze prozesuan parte hartu duten herritarrek: euskara eta

herri euskara, antzuolartasuna, alardea, herri sentimendua, elkartasuna herri mailan eta boluntariotza. Hala, baloreak armarriarekin bat ez datozela ondorioztatu dute.

Udalari proposamena

Herritar taldeak armarri berria diseinatzerakoan kontuan hartu beharreko irizpideak ere definitu ditu: armarri sinplea, bisuala eta irudi bakarrekoa izatea; koloreak kontuan hartzea, eta adibidez inguruko urdin eta berdea-



Antzuolako armarria. | GOIENA

rekin jokatzeari; euskaraz idatzitako hitz edo esaldiren bat izatea; alardea, elkartasuna, euskara, herri sentimendua, antzuolartasuna eta boluntariotza irudikatzea; eta Antzuolako jatorriarekin zerikusia izatea irudiak.

Udalak dioena

Udalak balorazio ona egin du eta herritarren inplikazioa eskertu gura izan du. Urtarrilean zehaztuko dituzte udal talde politikoen artean hurrengo pausoak zeintzuk izango diren.

Barkeroren omenezko hirunako txapelketa, domekan

A.E. | ANTZUOLA

Antzuolako beteranoeak antolatuta Xabier Barkeroren omenezko futbol txapelketa jokatu dute hilaren 26an Eztalan. Aurtengoa ezberdina izango da: hirunako txapelketa izango da, eta jokatu dute Arrasateko, Ber-

garako eta Antzuolako beteranoeak. 11:30ean hasiko da txapelketa. Lehenengo jokatu dute Arrasatek eta Bergarak; ondoren, talde galtzaileak Antzuolaren aurka; eta, azkenik talde irabazleak Antzuolaren aurka. 35 minutuko partiduak izango dira eta

amaieran sari banaketa egingo dute. Antolatzaileek adierazi dute sari banaketa izango dela 13:15 inguruan.

Alfonso Castroren omenezkoa

Abenduaren 28an, martitzena, Alfonso Castroren omenezkoa

jokatu dute gazteek. Eztalan izango dira lehiak, 10:30etik aurrera. AKEk antolatutako txapelketa izango da.

Herriko neska-mutikoekin egingo dituzte taldeak (zortzi talde). Partiduak jokatu dituzte zabaleran, 30 minutukoak. Sari banaketa Eztalan izango da baina eguraldi txarra eginez gero eskolako patioan izango da.

Olentzero eta Mari Domingi herrian izango dira hilaren 24an

Hilaren 24an Olentzero menditik jaitsi eta herrira etorriko da. Ume eta gaztetxoak pozik egoteko moduko eguna izango da. Goizean zehar Eskolako umeen eta gurasoen eskutik kalejira egingo du Olentzerok herriko kaleetan. Goizeko 11:00etan izango da; herriko alde baten hasi eta bestean bukatuko dute. Umeek Gabonetako doinuak abestuko dituzte. Arratsalde partean, ostera, Olentzero eta Mari Domingi irtengo dira kalera. Kalejira egingo dute eta ondoren ekitaldia Herriko Plazan. 18:30etik aurrera izango da ekitaldia.

Ordutegi berezia izango du gimnasioak Gabon jaietan

Abenduaren 31n itxita egongo da gimnasioa; eta, baita urtarrilaren 5ean 12:30etik aurrera, eta urtarrilaren 6an eta 7an. Bestalde, hurrengo bi astetan eguerditan itxita egongo da gimnasioa 12:30etik 15:00etara.

Gainera, 2011ko ikasturteari begira, material berriak eta ikastaro berriak izango dituzte gimnasioan. Ikastaro berriak izango dira: Stott pilates, erditze osteko gimnasia eta abdominalen eta zoru pelbikoaren tonu muskularra berreskuratzeko ikastaroa.

Arrolak antolatuta irteera egingo dute Urte Berri egunean

Urtea ezin hobeto hasteko modua da Arrola mendi taldeak proposatu duena. Urtero moduan mendi irteera egingo dute Arrolara. Goizeko 9:00etan irtengo dira Herriko Plazatik.

Arrola elkarteko ardura-dunek adierazi dute ez dela izena aurrez eman behar, hara agertzea nahiko izango dela irteeran parte hartzeko. Gainera, urtero moduan salda eta txistorra banatuko dute Arrola mendiko txabolan hara joandako guztien artean. Giroa bikaina izango da.

Joskintzan eta argazkilaritzan izena eman daiteke

Itsaso del Reyk emango du joskintza, urtarrilaren 10etik martxoaren 14ra, astelehene-tan, 18:30etik 20:30era Olaranen. Ikastaroaren prezioa 15 eurokoa da eta izena emateko azken eguna izango da urtarrilaren 4a, martitzena.

Juanje Amasorrrain izango da argazkilaritzako irakaslea. Otsailaren 1etik apirilaren 12ra egingo dute, martitzene-tan, Herri Eskolan, 18:00etatik 20:00etara. Argazkilaritza ikastaroan izena emateko azken eguna izango da urtarrilaren 25a.

NIRE USTEZ



KONTXI LASKURAIN

Esker ona nagusiei

Bizi gareneko garai honetan sarritan tratu txarrak ditugu albiste, gizona zuten seme-alabek gurasoen kontra egindakoak hain zuzen ere; baina nik oraingoan beste ikuspuntu batetik –ikusuntu positiboa– begiratu nahi diot kontu honi; familiako heziketak duen garrantzia handia azpimarratu nahiko nuke eta, aukera hau aprobetxatuz, omenaldi xume bat egin nahi nieke "gure nagusiei".

Gaur nagusi diren horietako askok tratu txarrak eta mota askotako mespretxuak jasan behar izan zituzten –normala zelakoan–, baina asmatu zuten zela eman buelta egoera horri eta gehienek beste modu batera hezi gintuzten, irmotasunez baina errespetuan oinarrituta, eta balio handiak txertatuz gainera: esfortzua, lana, elkartasuna, pertsonetikiko eta gizartearekiko interesa, eta abar.

Eta honen adibide geure gurasoak: aita, bere denborarako oso gizon txukuna eta zintzoa, osasunaren garrantzia erakustez gain herrian parte-hartzeak duen garrantzia berezia azpimarratzen diguna. Eta ama, umil eta apala, bere eskuzabaltasunaz gain, dena bestean alde ematen erakusten diguna. Biei, familiako denen partez, gure eskerrik beroena, ematen diguzuen maitasunagatik. Jaungoikoaren erregala bat da biok gure ondoan izatea eta, duda barik, gure bizitzetako erregalorik onena zarete.

"Biei gure eskerrik beroena ematen diguzuen maitasunagatik"

OHARRAK

ERAKUSKETA

Erakusketa antolatu dute urtean zehar herrian antolatu diren ekintzetan ateratako argazkiekin. 300 argazki inguru batu dituzte kultura sailekoek, eta Olaranen jarriko dituzte ikusgai. Domekan izango da, hilak 26, 18:30etik 20:30era. Bestalde, datorren domekan ere, urtarrilak 2, erakusketa zabalik egongo da, Olaranen ordu berean.

MUJIKAHARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatze eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXETIKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta
(zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehene-tan eta martitzene-tan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

Idoiaga: "Beharrezkoa genuen Zubillagan halako zubia"

- Uholdeak saihesteko egindako zubia inauguratu zuten astelehenean
- Pasabidearen alde bietan 3,60 metroko bidegorria egokitu dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Uholdeak saihesteko Zubillagan egin duten zubia astelehenean inauguratu zuten. Udaleko, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak moztu zuten zinta zubiaren aldeetako baten. Lourdes Idoiagaren hitzak esker onekoak izan ziren: "Denbora luzea itxaron dugu, baina zorionekoak gara. Uholdeak saihesteko beharrezko zubia zen, eta, ikusi dugun moduan, ondo egingakoa, gainera, ekaineko uholdeei aurre egin zien-eta".

Proiektua garatzen parte hartu zuten guztiak aipatu zituen, eta Zubillagako bizilagunek lanek iraun duten hilabeteetan sufritutakoa azpimarratu zuen alkatetik.

LKSk egindako proiektuaren arabera, ezaugarri abangoardistak ditu zubiak eta gauzez argiztatu egiten da. Zubiak sei metroko altuera du eta zortzi metroko zabalera. Zubiaren kanpoaldean 3,60 metroko espaloia egin dute. Hain zuzen ere, bidegorria egokitu dute gune horretan. Horren gainean egin zuen berba Foru Aldundiko Ingurumen zuzendari Javier Zarraonaindiak: "Oña-



Iñaki Atxukarro, Lourdes Idoiaga eta Javier Zarraonaindia zinta moztzen. | M.B.

DATUA

3,6

MILIOI EURO

Horixe da zubia egin eta erreka konpontzeko lanen aurrekontua.

ti Arrasaterekin lotzeko egin gura dugun bidegorri sarearen beste pausoetako bat da. 165.000 euroko aurrekontua izan dute bidegorria egokitzeko lanek".

Gaineratu zuen Oñati-Zubillaga arteko bidegorriaren proiektua idatzita dutela eta lanak 2011n emango dituztela. Azken tarte Zubillaga eta Elorregi lotzea izango dela azaldu zuen.

ESANAK

"Jaurlaritzan 22 milioi euro bideratu ditugu uholdeei aurre egiteko; 3,6 Zubillagarako"

IÑAKI ATXUKARRO | EUSKO JAURLARITZAKO SAILBURUORDEA

"Zubillagako tarte Oñati eta Zubillaga bidegorriz lotzeko beste pauso bat da"

JAVIER ZARRAONAINDIA | FORU ALDUNDIKO INGURUMEN ZUZENDARIA

Uholdeen kontra

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuorde Iñaki Atxukarrok esan zuen uholdeek eragiten dituzten ondorioak saihesteko esfortzu handia egin duela Jaurlaritzak 2010ean. "22 milioi euro bideratu ditugu uholdeen kontrako lanak egitera; horietatik 3,6 milioi Zubillagako lanak egiteko erabili ditugu". Sailburuordeak azpimarratu zuen uholdeak izateko arriskua duten lekuak detektatzea oso inportantea dela.

Olentzerok bihar jasoko ditu azken gutunak

M.B. | OÑATI

Gabonei ongietorria egiteko, Olentzero herriko kaleetara jaitsiko da bihar. 17:30ean hasita kalejira egingo du eta umeen gutunak jasoko ditu plazan.

Hilaren 29an, *Bizitzaren maitasun* harian delako ikuskizuna egingo dute Ganbarakoek. Musika, poesia eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna Santa Anan egingo dute, 19:00etan.

Bestalde, urtarilaren 5ean bertso saioa egingo dute. Artzallus, Colina, Peñagarikano, Irazu, Lizaso eta Zubeldia igoko dira oholtzara, 22:30ean.

Manifestazio nazionala

Oñatiko Aministiaren Aldeko Mugimenduak askotariko ekitaldiak antolatu ditu Gabonetarako. Hilaren 25ean elkartasun kontzertua egingo dute gaztetxean. Hilaren 26an Martuteneko espetxera martxa egingo dute. Urteko azken egunean manifestazioa egingo dute, 19:30ean, eta brindisa 01:00etan. Azkenik, urtarilaren 8an Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko dei egin dute.



Sustrai Aloña taldeak 2010eko kirol talde onenaren saria jasoko du. | GORKA JUDEZ

Urteko kirolari eta kirol talde onenak sarituko dituzte gaur arratsaldean

Iban Letamendik, Jabi Baltzategik, Xabi Igartuak eta Sustrai Aloña Mendi saskibaloia taldeak 2010ean egindako lana azpimarratu du epaimahaiak

M.B. | OÑATI

2010eko kirol sariak banatuko dituzte gaur udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Banakako kirolariak eta kirol taldeek egindako

lana aitortuko dute 19:00etan hasiko den ekitaldian. Hori horrela, Iban Letamendi (kirolari onena), Xabi Igartua (entrenatzaile onena), Jabi Baltzategi (kirolaren

alde egindako lanagatik saria) eta Sustrai Aloña Mendi (kirol talde onena) sarituko dituzte.

Bestalde, 2010ean egindako lanagatik beste bost kirolariren

lana ere azpimarratuko dute: Mari-sol Ramon, Aitor Otxoa, Ane Sanz de Galdean, Sergio Gartzia eta Markel Irizar, hain zuzen ere.

Bideoa

Sari banaketa udaletxean egingo dute. Ekitaldia hasteko, Oñatiko kirolak emandakoa laburbiltzen duen bideoa erakutsiko dute. Ondoren, sariak banatu eta aipamenak egingo dituzte. Ekitaldia bukatzeko luncha egongo da parte-hartzaile guztiendako: sari-tuendako eta ikusleendako.

34 negozio aurkeztu dira erakusleho lehiaketara

Udalak deitutako III. erakusleho lehiaketara 34 negozio aurkeztu dira; sari banaketa hilaren 30ean izango da. Epaimahaiak diseinua, originaltasuna, irudimena, argiztapena, gaia eta berrikuntza baloratu-tuko ditu.

Bestalde, herritarrek boto bidez aukeratu dute gustuko duten erakuslehoia. Botoa eman ahalko dute abenduaren 28ra arte *Kontzejupetik* aldizkarian jasoko duten txartela-rekin.

Saio berezia egingo dute Oñati Irratian Eguberri egunean

Oñati Irratian saio berezia egingo dute Eguberri egunean. 10:00etatik 12:30era irratsaioa egingo dute FM 107.4an Mikel Aranburuk, Josu Elortzak eta Aratz Losadak. Herritarrek eta urte osoan etxetik kanpo egoten direnak elkarrizketatuko dituzte, besteak beste. Gainera, Eguberri egunean lan egiten dutenekin egingo dute berba. Era berean, Olentzerok irradian utzitako opariak banatuko dituzte.

Umeek ez dute aspertzeko astirik izango Gabonetarako antolatu dituzten ekimenekin

- Hilaren 27tik 30era bitartean haurrendako parkea jarriko dute kiroldegian; bonuak 12 euro balio du
- Domekan, abenduak 26, Oñatiko Ganbara abesbatzaren kontzertua dago unibertsitateko kaperan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA
Ohikoa denez, ekimenez josita datoz Gabonak. Olentzeroren etorrera baino lehen, gaur, Bilboko Gabonetako parkera joango dira herriko neska-mutikoak. Egun zoragarria pasako dute han.

Bihar, eguerdian hasiko dira ekitaldiak: 12:30ean, plazan elkartuko dira umeak, kantuak abesteko eta, bide batez, Olentzeroren laguntzaileei eskutitzak emateko. Bitartean, trikiti eskolako ikasleek kalejira egingo dute. Arratsaldean, Apotzagatik datorren Olentzerori ongietorria egingo diote Intxaurtxuetan. 18:00etan iritsiko da ikazkina. Jarraian, txistulari eta soinu-jotzaileekin lagunduta, kalez kale ibiliko da. Ohiturari jarraituz, Gabon egunean eskoriatzarrak euskal jantzi tradizionalekin kalea irten daitezela eskatu dute.

Oñatiko Ganbara abesbatza
Domekan, egitarauko berritasuna izango da: hain justu, Oñatiko Ganbara abesbatzak kontzertua eskainiko du unibertsitateko kaperan, 19:00etan. Musika ema-



Besteak beste, ohe elastikoak izango dituzte umeek hilaren 29an eta 30ean kiroldegian. | MIRIAN BITERI

naldiak ordubete inguru iraungo duela jakinarazi dute.

Bestalde, datorren astean umeak izango dira protagonistak: Gabonetako parkea jarriko dute hilaren 27tik 30era kiroldegian. Astelehenean eta martitzenean uretako parkea izango dute igerilekuan; eta eguaztenean eta

egunean, osterara, kiroldegiko kantxan puzgarriak, ohe elastikoak, rokodromoa, tailerrak eta bestelakoak egongo dira.

Horren harira, Udaletik jakinarazi dute lau egunotarako txartelak 12 euro balio duela; igerilekurako egun bateko sarre-
rak hiru euro eta kantxarako

egun bateko sarrerak, berriz, bost euro. Horrekin batera, gurasoei eta laguntzaileei eskatu nahi diete ahal den neurrian taberna edo harmailetan egoteko, begiraleen lana erraztu aldera eta umeek parkean leku zabalagoa izan dezaten.

Gabon zahar egunean, berriz,

OLENTZEROREN ETORRERA

EGUBAKOITZA

12:30 Haurrak plazan batuko dira abesteko.

12:30-13:30 Olentzeroren laguntzaileak plazan egongo dira eskutitzak jasotzeko.

13:00 Trikitilarien kalejira.

18:00 Olentzeroren etorrera. Ibilbidea: Intxaurtxueta, Gaztañadui, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, Arana eta plaza.

kirola izango da nagusi: 11:00etan haurren lasterketarako izenematea zabalduko da eta parte-hartzaileek dortsalak marraztuko dituzte. Lasterketa ordubete geroago hasiko da, plazan; amaieran, txistorra beroa izango dute zain. 16:30ean, osterara, helduen lasterketarako izena eman ahal izango da. Ordu erdi geroago hasiko da, brindisa egin ostean; eta amaitzean, luncha egongo da. Bestalde, urte hasierako kanpaien ostean, 01:00etan, presoan aldeko brindisa egingo dute plazan.

Urtarrilaren 5era bitartean egitarau bereziak antolatu dituzte ludotekan eta gaztelekuan. Urtarrilaren 5ean, berriz, Erregeen Kabalgata egongo da, 19:00etan.



Amuskakoek Santa Maria katedrala bisitatu zuten

Amuska emakume elkarteak Gasteizen izan ziren zapatuan, katedral zaharrean egiten diharduten lanak bisitatzen. 29 emakume izan ziren irteeran. Oso gustura ibili zirela jakinarazi digute: "Katedrala asko gustatu zitzaigun, oso ondo erakusten dute-eta, azalpen ulergarriekin; bisita amaitu baino lehen, gainera, txokolate beroa eman ziguten".

Jabe bariko Santa Marinako etxeak esleituko dituzte

Osoko bilkuran onartu dute zozketatu barik dauden 14 etxe tasatuen esleipenaren oinarriak

M.B. | ESKORIATZA
Eguazten iluntzean egindako ezohiko osoko bilkuran, Santa Marinan esleitu barik dauden etxe tasatuak zozketatzeko oina-

rriak onartu zituzten. Talde guztiek alde bozkatu zuten, EB-Berdeak alderdiko ordezkariak izan ezik; abstenitu egin zen.

2009tik erroldatuta
Oraindik 14 etxe daude han jabe barik. Horietako batean sartzea nahi dutenek jakin dezatela bizikidetzarako unitateko kide batek gutxienez adin nagusikoa izan beharko dela eta onuradunak ez direla beste etxebizitza baten jabe izango. Horretaz gain, 2009ko urtarrilaren 1etik egon beharko dira gutxienez Eskoriatzan erroldatuta. Debagoieneko gainerako herrietakoak ere eskaera egin ahal izango dute, 2009ko urtarrilaren 1etik bilarako beste herri

batean erroldatuta baldin badaude, eta eskaintza eskaera baino handiagoa baldin bada.

12.000 eta 45.000 euro
Diru sarrerei dagokionez, bizikidetzarako unitatearena ez da 45.000 eurotik gorakoa izango; ez eta 12.000 eurotik beherakoa ere. Horrez gain, aurretik babes ofizialeko etxebizitza baten onuradunik ez izatea eta Etxebiden 2010eko abenduaren 15etik izena emandako egotea eskatzen da oinarrietan.

Etxe tasatu horiek Visesa dabil eraikitzen, eta Pedro Lasagabaster alkateak jakinarazi duenez, laster amaituko dituzte.

Gaztañaduin, beste bi etxe
Bestalde, Gaztañadui kaleko 27. atarteko bi lokal etxebizitza tasatu bihurtzea ere erabaki du Udalak, eta joan den eguazteneko osoko bilkuran, horien esleipenaren oinarriak ere onartu zituen udalbatzak. Baldintza orokorrak Santa Marina auzoko etxebizitza tasatuenak dira.

Danbakako finalista Xarmak joko du zapatuan Inkernu tabernan

M.B. | ESKORIATZA
Rock doinuak nagusituko dira zapatuan Inkernun. Hain justu, Ondarroako Xarma taldea igoko da Eguberri egunean agertoki gainera, 23:00etan. Danbaka lehiaketako aurtengo finalera iritsi den taldea da, Lord Witch eta Despreziorekin batera.

Joshua, Chistian, Jon Kirru eta Itsasok osatzen dute taldea. 2007an, Keike taldearen bigarren diskoko biraren azken kontzertuak ematen ari zirela, azken biak euren kabuz landutako kantuei forma ematen hasi ziren, eta horiek grabatzea erabaki zuten. Horretarako, Zain taldean

bateria-jotzaile lanetan zebilen Josuah Frouferengana jo zuten; aurretik Keikerekin hainbat lan eginda zituen hark. Bost abestiz osaturiko maketa bat grabatu zuten Ondarroako Santos Records estudioan. Handik gutxira, Etxe bakarlariarekin baxu-jotzaile lanetan zebilen Christian Martin sartu zen taldean, eta egun-go taldea osatu.

2009an, iraupen luzeko lehen lana grabatu zuten Tolosako Bonberenean, Karlos Osinagaren gidaritzapean. *Amaraunak* izeneko diskoak 12 kantu ditu. Horiek eta bestelakoak entzungo dira gaur Inkernun.

Gabon kontzertua Otañoren kantuekin

Abesbatzak 30. urteurrenari bukaera eman eta Otañoren diskoa aurkeztuko du domekan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Emanaldi berezia du Aretxabaleta Abesbatzak domekan, hilak 26, parrokan (19:00). Urtero egin izan duen Gabonetako kontzertua Nemesio Otaño konposatzailearen omenez egingo du aurten. Hala, irailean egindako diskoa aurkeztuko du herritarren aurrean. Era

berean, aurten ospatu duen 30. urteurrenako ekitaldiei bukaera emango die kontzertuarekin.

Franzesena organo-jotzailea

Nemesio Otaño konposatzaile jesuitaren kantuekin egindako diskoa *–Nemesio Otañoren omenez–* irailean aurkeztu zuen abes-

batzak Loiolako Inazioren santutegian. Domekan gurean erakutsiko dute eta konposatzaile azkoitiarra protagonista duen emanaldia gertatu dute; beste abesti batzuen artean, sei Otañok egindakoak izango dira; tartean, *Lagun zaiguzu*, *Izar eder* eta *Ave Maria*.

Abesbatzak Jose Luis Franzena organo-jotzailea izango du lagun eta abesti bi organoarekin bakarrik eskainiko ditu: *2 Noel* eta Gabonetako euskal abestiak.

Hala, ekitaldiz betetako urtea bukatuko du Aretxabaleta Abesbatzak; hain zuzen, 30 urteko ibilbidea jaso duen DVDa eta Otañoren diskoa aurkeztuta.



Aretxabaleta Abesbatzako kideak, Nemesio Otañoren omenez egindako diskoa aurkeztu zutenean. | ARETXABALETA ABESBATZA



Isidora (ezkerretik, lehen emakumea), gainerako parte-hartzaileekin. | M.A.

Isidora Garzia-Etxabe kantu txapelketako onena

Basotxok antolatutako II. Kantu eta Narrazio txapelketan 20 abesti grabatu dituzte

M.A. | ARETXABALETA

Santo Tomas eguna ospatu zuten Basotxoko bazkideek martitzenean, umore onean eta lagun giroan. Mus txapelketaren finala jokatu hasi zuten ospakizuna. Sei lagunek jardun zuten txapelketan eta onenak izan ziren: Justo Guruzeta eta Antonio Priego; eta bigarren geratu ziren: Manuel Garcia eta Alfonso Fernandez. Irabazleek orain, Debagoieneko txapelketa jokatuko dute.

Lau kantu txapelketan

II. Kantu eta Narrazio txapelketako sariak banatu zituzten gero. Ekitaldia hasi aurretik, baina, omenaldi txikia egin

zioten aurten hil den Emilia Murillo bazkideari. Iaz 20 abesti eta 14 erromantze abestu zituen berak, eta saria eskuratu ere bai. Haren ilusia, oroimena eta kantarako gogoia omendu gura izan zituzten martitzenean, eta senide asko elkartu ziren ekitaldi hunkigarrian Basotxoko lagunekin batera.

Aurtengo kantu txapelketako sariak banatu zituzten gero. Lau lagunek hartu dute parte eta 20 abesti eta bi narrazio grabatu dituzte. Irabazlea 90 urteko Isidora Garzia-Etxabe izan da eta bigarren geratu dena Gumer Encina. Bukatzeko opariak zozketatu eta txistorra jan zuten Basotxoko kideek.

OHARRAK

TOPOGIDA AURKEZPENA

Aretxabaleta inguruko gida-liburuxka aurkeztuko dute gaur (19:00), Arkupen.

GABON KANTUAK

Ikastetxeetako ume eta gurasoak Gabon kantuan ibiliko dira bihar, kalean (10:30-12:30).

OLENTZEROREN ETORRERA

Olentzero etorriko da bihar, Araba ibilbidetik plazara (18:30).

FUTBOL TXAPELKETA

Bixente Etxeandia txapelketa jokatuko dute Debagoieneko futbol eskoletako gazteek Ibarren hilaren 26an, 27an eta 28an.

GOSPEL MUSIKA

The Upper Room taldearen kontzertua hilaren 27an, Arkupen (19:00).

DOKE TALDEAREN ANTZERKIA

Iragana iragan lana eskainiko du hilaren 30ean, Arkupen (19:30).

BIZAR ZURIEN ETORRERA

Bizar Zuri dator hilaren 31n, Araba ibilbidetik plazara (18:30).

UMEENDAKO IKUSKIZUNA

Gorakada taldeak *Cyriano* txo-txongilo saioa eskainiko du urtarriaren 2an, Arkupen (17:00).

ERREGE KABALGATA

Errege Kabalgata pasatuko da herritik, Araba ibilbidetik Herriko Plazara, hilaren 5ean (18:30).

NIRE USTEZ

GORKA ETXABE



Abenduko gaztaina erreak

Gure amak esan zidan aurrekoan beraien belaunaldia desagertuaz bat belaunaldi berriek Gabonak ospatzeari utziko diogula, edo, behintzat, ospatzeko modua aldatuko dugula. Gazteok bizitzari desberdin begiratzen diogula dio, eta

bizitzaren arlo guztietan dela nabarmena aldaketa. Gure amak arrazoa duela uste dut. Gabonak familia giroan ospatzea gogoko badut ere, gero eta jende gehiagok alde egiten du: bidaiak antolatzen ditu, eskiatzera doa edo Kanariar irletan egonalditxo egiten du.

Urtean baditugu beste hamai-ka egun familian ospatzeko! Eta jaiegunak bidaiatzeko aprobetxatu behar ditugu! Onartu beharra dut, nik ez daukadala argi eta kontu honekin ez dakit zer egin. Gustuko ditut Gabonak, eta familia giroan ospatzen baditut ere, geroago eta nagikeria handiagoa ematen dit horrek guztiak. Askotan

pentsatzen dut gustura joango nintzatekeela kanpora (ez dezala nire emazteak irakurri).

Ziur naiz asko nirekin bat datozela. Familia askotan daude arazoak, hildako senideen samin gaundiezina, gaixotasunek eragindako mina, tristura ustela eragiten duten egoerak, eta uste dut Gabonetan guztiok egoten garela sentiberago eta azaleratzen ditugula sentimenduak nabarmenago.

Batzuek zein besteek, etxean zein kanpoan, ospatu nahi eta ahal duzuen moduan Gabon egunak. Nik, Aretxarte elkarteari eskerrak, abenduko gaztaina erreak dastatzu hasi ditut ospakizun egunak.



LANBIDE ESKOLA

Etxeko zerbitzari ziuurtagiria

Etxeko zerbitzari ikastaroa bukatu berri dute Aretxabaleta Lanbide Eskolan. 14 lagunek egin dute ikastaro hori, guztiak helduak eta, erdiak, kanpotik etorritakoak. Gehienek jaso dute ziuurtagiria eta oso gustura ibili direla jakinarazi dute ikastetxeko arduradunek.

Herriko Plazan ikurrina handia jartzeko ekitaldia egingo dute egunotan, herritar batzuek eskatuta

Herritar batzuek –hainbat elkartetako ordezkariak eta alderditako zinegotzi ohiek babestuta– Herriko Plazan ikurrina jartzeko eskaera egin zioten Udal Gobernuari. Horrek onartu eta Gabonetako egunotan jarriko dute. Ez dute zehaztu zein egunetan izango den, ikurrinari eutsiko dion haga ez delako iritsi. Behin jasotakoan ekitalditxo egin gura dute, herritarrek gonbidatuta, ikurrina igotzeko, eta 1977ko urtarriaren 19an ikurrina udaletxean lehenengo jarri zuen udalbatzako kideren bat gonbidatuko dute.



PAULANER

Bierhaus

Zuretzako prestatu dugun
karta berria


Ikusi...

Maitatuko duzu!

Talde menu berriak
pertsonako 8,5 €-tik hasita

4 pertsonarentzako menua: alemaniar-taula zabala,
kartiffelsalat, 3 saldako Töstia, saltxitxa barietatea patata
frijituekin, aza entsalada, ukondo zaku txikiapatata
krema gainean duela.

Zure talde menuarekin
garagardo erronda 1
DOAN*



Paulaner Bierhaus
Aretxabaleta
Herriko Plaza, 8
20550 Aretxabaleta
Gipuzkoa

ARAMAIO

Olentzerori ongietorria bihar arratsaldean plazan

Astelehenetik eguaztenera gaztetxoei zuzendutako ekitaldiak eguerdian eta arratsaldean, 17:00etan

EDU MENDIBIL | ARAMAIO

Bihar, barikua, eskolako gurasoen elkarrekin antolatuta, Olentzerori ongietorria egingo zaio 18:00etan plazan. Gaztetxoek aukera izango dute Olentzerori opariak bertarik bertara eskatzeko.

Bestalde, Gabonetako egitarauarekin jarraituz, astelehenean, hilaren 27an, umeendako tailerrak izango dira ludotekan, eguerdiko hamabietan. 5 urtetik beherakoek gurasoen laguntzarekin joan behar dute bertara. Astelehenean, arratsaldean, Zirkun antzerki taldeak *Tina* ikuskizuna eskainiko du. Arratsaldeko bostetan izango da aipatutako txotxongilo emanaldia.

Martitzenean eta eguenean ere, eguerdian haurrendako tailerrak izango dira eta arratsaldean ikuskizunak, martitzenean ipuin kontalariak eta eguaztenean magia, Madiber magoaren eskutik. Ikuskizun biak 17:00etarako daude iragarrita.

Gospela hilaren 30ean

Musikarako tartea ere izango da Gabonetan. Hain zuzen ere, hilaren 30ean The Upper Room taldearen emanaldia izango da kultura etxean, 22:00etan. Euskaraz eta ingelesez gospela jorrazten dute Mikel San Jose eta Iñaki Miguel donostiarrek, The Upper Room taldeko bikoteak.



Olentzero Aramaiora iritsiko da gaur arratsaldean. | GOIENA

Eta Gabon zaharretarako, hilaren 31rako, Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak txintxina antolatu du urte berriari ongietorria emateko. Gauerdia iren ondoren, 00:30erako egin dute hitzordua, plazan. Urtarrilaren 1erako, berriz, Orixolera mendi martxa iragarrita dago.

Zinema emanaldia domekan

Ohikoa denez, neska-mutilei zuzendutako zinema emanaldia izango da domekan, hilaren 26an, Sastiñan, 17:00etan. Oraingoan *Niko izarretako bidean* filma eskainiko dute.

Hilaren 30ean, Bilbora

Bestalde, 30 gaztetxo inguruk hartuko dute parte Udalak abenduaren 30erako Gabonetako haurren parkera, Bilbora, antolatutako irteeran. 09:15ean aterako da autobusa Aramaiotik.

Trikikalejiraren kiniela

Azkenik, *Egin ezazu zoriontsu herri oso bat* lelopean, itxitako errepidea zein egunetan zabalduko dute asmatzen duenak Dukiena jatetxean bi lagunendako afaria irabaziko du. Euro baten truke ohiko tokietan eskura daitezke kinielarako txartelak.

ARAMAIO

Agenda 21: herritarrekin batzarra gaur arratsaldean udaletxean

E.M. | ARAMAIO

Joan den asteko bileraren ostean, Agenda 21eko ekintza plana lantzeko bigarren herri batzarra izango da gaur, eguena, osoko bilkuren aretoan, 18:00etan. Ekintza plana osatzen duten programen artean garrantzitsuenak aukeratu zituzten partaideek aurreko astean, eta horiek aztertzea, ekarpenak eginez, da gaurko bileraren helburua. Orain arte landutako dokumentuak www.aramaio.org webgunean daude eskuragarri.

Bainuetxeak eta loteria

Pentsiodunei zuzenduta, bainuetxetara joateko irteeren lehen

txanda otsail eta abuztu bitartean izango da eta eskaerak aurkezteko epea urtarrilaren 17ra arte dago zabalik. Bigarren txandari dagokionez, 2011ko irailetik abendura bitartean izango da eta izenematea, kasu horretan, maiatzaren 16rako egin behar da. Eskaera egiteko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren udaletxeko bulegora jo behar dute interesatuek. Argibide gehiago udaletxean, 945 44 50 16 telefonon jaso daitezke.

Bestalde, Alaiak erretiratuak elkarrekin oharra bidali digu: abenduaren 22ko Gabonetako Loterian bazkide bakoitzak 3 euro jokatzen zituen ondoko zenbakiarekin: 66.304.

ARAMAIO

'Iragana iragan' antzezlan domekan kultura etxean

E.M. | ARAMAIO

Doke taldearen azken antzezlan ikusteko aukera izango da domekan kultura etxean, 20:00etan. *Iragana iragan* izenburupean, Mondragon hiriaren sorreraren 750. urteurrenari eutsi diote Dokeko kideek. Hain zuzen, *Arrasate-Mondragon* binomio itxuraz gatazkatsua umorezko klabean landu dute; Josemari Velez de Mendizabalek idatzitakoa da antzezlan eta, Itziar Rekaldere zuzendaritzapean, hauek izango dira agertokian: Eugenio Etxebeste, Arantza Ezkurra, Mikel Iras-tortza, Saioa Iturbe, Josu Jau-

regi, Marga Merkader, Mariasun Pagoaga, Itziar Rosado eta Elena eta Jesusmari Velez de Mendizabal.

Bospasei urte antzerkian

Doke taldea orain dela bospasei urte sortutakoa da eta aurretik, 2006an, Pedro Ignacio Barrutiak (Aramaio, 1862) XVIII. mendean idatzitako *Acto para la Noche Buena* antzezlan berreskuratu zuten taldeko kideek.

Azken lanaren estreinaldia aurreko asteburuan egin zuten Arrasaten. Domekan, esan bezala, Aramaiora iritsiko da *Iragana iragan*.



Antzezlaneko irudi bat, asteburuko estreinaldikoa, Arrasaten. | JULIO CALLEJA

LEINTZ GATZAGA

Gatzagaingo ur deposituaren eraikitze lanen deialdia egin du Etorlurrek

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagainen egin gura duten ur deposituaren lanen deialdia egin zuen Etorlurrek abenduaren 13an eta hilabeteko epea dute orain enpresek eskatutako agiriak aurkezteko. Urtarrilaren 13ra bitartean aurkeztutako proiektuak aztertuko ditu Etorlurrek eta gero lanok esleitu, ondo bidean

otsail bukaera inguruan hasita egon daitezke. Lanok 617.028 euroko aurrekontua dute eta horietatik 400.000 euro Landagipuzkoa egitasmoaren bitartez finantzatuko dituzte. Gainerakoa Udalak jarriko du, eta mailegua eskatzeko asmoa dauka. Deposituaren lanek, gehienez ere, hamar hilabete iraungo dute.

LEINTZ GATZAGA


Gabon kantuan ibili ostean Olentzero dator bihar gutunena bila

Gurel guraso elkarrekin antolatuta, urtero legez, Gabon kantuan joango dira bihar goizean goiz umeak eta gurasoak. Baserri guztietan eta kalean abestu ostean, Toki Eder elkartean bazkalduko dute; bazkalostean, Olentzeroren bisita izango dute, gutunak jaso ditzan.

ARBEL

Koop. Elk.

Garantiazko pentsu naturalak



Errotabarri 1
Aramaio
Tel.: 945 44 51 19

ITURRIOSTE GARAJEA

Nekazaritza makinak eta autoen
salmenta eta konponketa.
Olio, gurrpil eta balazten konponketa

Ondo ibili Gabonetan!!!

Santi Kurtz plaza 14. Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO



Olentzero, iaz, Elgetako Herriko Plazan. | L.Z.

Ordu gutxi batzuk besterik ez da falta Olentzero Intxortatik Elgetara jaisteko

Urtero moduan, herriko neska-mutikoak ikazkinaren bila irtengo dira Intxorta aldera; 11:00etarako egin dute hitzordua Herriko Plazan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Urduri daude Elgetan ere neska-mutikoak. Gaur, Gabon bezpera, jaitsiko da Olentzero Intxortatik, eta, jakina denez, opariak ekartzen ditu zintzoak izan diren umeendako, baina ikatza hain formalak izan ez direnendako. 18:30erako espero dugu Elgetan. Ilunpean eta kriseilua eskuan duela jaitsiko da ikazkina Salbadorren behe-
ra. Eta ondoan eramango du astoa. Karga-karga eginda etorriko ote da?

Aurretik, Intxortara igoko dira herriko neska-mutikoak Olentzeroren bila. Entzun dugu aurten Mari Domingi ere Elgetan

izango dela eta ipuin kontaketa saioa egiteko eskatuko diotela.

Txokolate-jana eta kantuak

Herriko musika ikasle gazteenek Gabon kantuak eskainiko dizkio-
te gaur iluntzean Olentzerori, eta, itxaronaldia eramangarriago egiteko, txokolate beroa agindu dute Maala guraso elkarteko kideek. 17:00etatik aurrera banatuko dute Herriko Plazan. Hori bakarrik ez, bihar, Gabon eguna, etxez etxe kantuan egiteko gonbita ere egin dute guraso elkartetik. Musika irakasle Lorea Larrañagak laguntza eskaini du kantuak prestatzen laguntzeko,

eta Adolfo Jainagak ere parte hartuko duela agindu du. Jakinarazi dute bihar 11:00etan eman-
go diotela hasiera ibilbideari Herriko Plazatik.

Haur parkea eta skate saioa

Bost eguneko haur parkea izan-
go dugu aurten Elgetan. Eta sarrerak dagoeneko salgai daude Julianen kioskoan. Urtarrilaren 3an egingo den skate saiorako izenematea ere zabalik dago. Ezinbestekoa da 5 urtetik gorakoa izatea, baina plaza mugatuak dira; beraz, interesa edukiz gero, eman lehenbailehen izena ludo-
tekan edo gaztelekuan.

Herriko bost produktore gertu daude zuzeneko salmenta egiteko

Erosteke interesa dutenek zuzenean jarri behar dute harremanetan produktoreekin

L.Z. | ELGETA

Etxean hazitako barazkiak, babarrunak, sagarrak, intxaurrak eta abar eskaintzen dituzten baserritarren eta ortuzainen zerrenda ikusgai dago *elgeta.org* webgunean.

Jose Luis Larrañaga (Jari-
kotxo), Jose Antonio Ojanguren (Aizkorta), Sebas Arantzabal (Zabaleta), Pedro Mari Ubera eta Arantza Askasibar (Jalotza) dira zuzeneko salmenta egiteko prest agertu diren lehenengo bost produktoreak. Barazkiak, patatak, babarrunak, intxaurrak eta sagarrak eskaintzen dituzte, nork bere produkzioaren ar-
bera.

Produktu horiek erosteko interesa izanez gero, produkto-
reekin ipini behar da harremanetan. Udalak zubi lanak egin ditu orain arte. Aurrerantzean

saltzailearen eta eroslearen artean finkatuko dira salneurria, maiztasuna-eta.

Etxeko produktuak

"Zerrendako baserritarrek ezin dutelako gehiago eman, base-
rriko produktuak erosi nahi dituen herritarren bat lortu ezinik geratzen bada jar dadila gurekin harremanetan", adie-
razi dute Udaletik. "Komeni zaigu interesa daukaten herritar guztien berri izatea. Eta, behar izanez gero, sustatuko dugu baserritar gehiago anima dai-
tezen etxeko produktuak eskaint-
zera". Gogoratu behar da, aldi berean, herriko dendetan ere herrian egindako produktuak eskaini ohi dituztela. Herriko zenbait produktorek denda horie-
tan jartzen dituzte salgai etxeko produktuak.

PRODUKTOREAK

	BASERRIA	PRODUKTUAK	TELEFONOA
Jose Luis Larrañaga	Jarikotxo	Barazkiak, patatak, babarrunak, intxaurrak	943 76 54 92
Sebas Arantzabal	Zabaleta	Patatak, babarrunak, porruak, intxaurrak	943 76 54 39
Jose Antonio Ojanguren	Aizkorta	Patatak, babarrunak	943 76 81 88
Pedro Mari Ubera	ortua	Sagarrak	943 76 80 28
Arantza Askasibar	Jalotza	Intxaurrak	943 76 81 41

OHARRAK

HERRIXA DANTZAN

Abenduko azken domeka dugu honakoa; hortaz, hitzordua dugu Elgetan *Herrixa dantzan* ekime-
narekin. Beraz, hilaren 26an, dantza saio irekia izango dugu Espaloia Kafe Antzokian. 19:00etan hasita eta ordu eta erdiz hainbat dantza egiteko eta ikasteko aukera egongo da Patxi Monteroren gidaritzapean. Gogoratu behar da sarrera doakoa dela.

TUTOREA KZGUNEAN

Astlehenean, hilak 27, Elgetako KZgunean izango da Aitor Madrid tutorea. 09:00etatik 13:00etara egongo da, eta, ohikoa duen moduan, hainbat ikastaro egiteko aukera emango du. Ikastaro horiek 16 urtetik gorako erabil-
tzaileendako dira. Draw, gimp, sare sozialak, skype, Google tres-
nak, Blogger, Youtube... hamaika ikastaro aukeran.

PILOTA FINALAK

Urtezahar eguerdian jokatu-
ko dira pilotako finalak. 10:00etan umeen txapelketakoak jokatu-
ko dira eta 11:30ean hasita nagusie-
nak. Aurrez aurre izango dira lehenengo Andoni Elortza-Odei Zenitagoia eta David Peñalver-Sergio Bouzas bikoteak. Eta jarraian, Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu eta Angel Ibarluzea-Alberto Telleria.



Beak Gabon zoriontsuak opa dizkizue!

Andra Mari 2 ELGETA Tel.:943 76 80 98

Aperribay, s.l.

*Marmoldegi
eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

ERDIKO DENDA
Janari denda - Ogia - Kafea

*Gabon zoriontsuak
elgetar guztioi!*

Gudarien bidea 6 ■ 943 76 81 07 ■ Elgeta

Aurten ere gazte mailako saskibaloia onena izango da Ointxe! eta MUren eskutik

Hirugarren urtez puntako saskibaloia torneo antolatu dute, hilaren 26an hasita

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Ointxe! Saskibaloia Taldearen eta MUren eskutik abenduaren 26an, 27an eta 28an gazte mailako saskibaloia onena batuko da Arrasaten, Iturripen.

Hala, Gabonetako III. Euskadiko Kutxa txapelketak Euskal Herriko, Bartzelonako eta Errioxako taldeak elkartuko ditu. Aurrez aurre izango dira Euskal selekzioak kadete mailako taldea, Goierri, Logroñoko Clavijo, Bartzelonako Cornella, Iruñeako Lagunak eta Mondragon Unibertsitateko ordezkariak.

Torneoa MUko eta Lagunak taldekoek hasiko dute, domekan,

16:30ean. Ondoren, 19:00etan, Euskadiko selekzioak eta Clavijok jokatu dute. Hilaren 27an, 10:15ean hasiko dituzte partidua, eta guztira lau partidua jokatu dute egun horretan –Baita *Hot Shot*-en lehiaketa ere.

Hilaren 28an, finala

Aurreko egunetan kanporaketa faseak gaituzte ostean, hilaren 28an finalerdia –10:30ean hasita– eta finala (12:30) jokatu dute. Eta, 14:15ean egingo dute torneo sari banaketa.

Bistan da, iazkoa ikusi ostean, aurtengo edizioan Euskadiko selekzioa dela talde faboritoetako

bat, eura dira txapelak ohiak. Eta, eurekin batera finalera salto egin zuen Cornella talde indartsuak ere izango du zeresana.

Gainontzeko lau taldeak, baina, ez datoz Gabon-pasa. Euren txapelketetan ondo sailkatuta dauden taldeak dira, baina, torneoak balioko du lurralde bakoitzeko gazte mailetan ze kategoria dagoen ikusteko. Eta, Gipuzkoan dagoen maila ona erakusteko ardura izango dute bertako bi ordezkariak, Goierri eta MUK.

Torneoko partidua guztien berri izateko, Arrasateko klubeko webgunetik jaitsi dezakezue triptikoa www.ointxe.com.



Txapelketaren aurkezpeneko irudi bat. | ARIZMENDI

Emakumezkoen Super Ligako Realak, Athletic, Eibar, eta Debagoieneko selekzioa, hilaren 31n Ibarra

Arizmendi Ikastolak antolatuta, Gabonetako Emakumezkoen Futbol Txapelketa barruan, senior mailako txapelketa Super Ligako Realak, Athletic, Eibar eta Debagoieneko selekzioak jokatu dute, abenduaren 31n, Ibarra futbol zelaian (Aretxabaleta). Hala, parte-hartze horrekin torneoan Euskal Herriko talde indartsuenetako ordezkariak izango dira. Bestalde, Gabonetako txapelketaren barruan baita ere, infantil eta kadete mailako partidua abenduaren 30ean jokatu dute, goizez eta arratsaldean.

Abenduaren 26an hasiko dute Futbol Eskolako Bixente Etxeandia Eguberritako Txapelketa

Ibarreko Futbol Eskoletako jokalariek Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian egingo duten Bixente Etxeandia Txapelketan ibiliko dira buru-belarri. Hilaren 26an 2002an jaiotako neska-mutikoen lehenengo fasea jokatu dute. Hilaren 27an, 2000 urtean jaiotako txanda izango da, eta hilaren 28an, 2001ean jaiotakoena. Hala, lehenengo faseko txapelak eta azpitxapelak urtarilaren 3an jokatu dituzten azken fasea sailkatu dira. Hori horrela, ondo bidean hilaren 3ko finalak 17:00etan hasiko dituzte, eta 18:30ean izango da sari banaketa.

Urtarrilaren 21ean banatuko dituzte Debagoieneko Kirol Sariak, oraingoan Aramaion

Orain arte abenduan banatu badituzte ere, aurtengo DKS sariak urtarilean banatuko dituzte, Aramaion. Hori da aurtengo edizioak izango duen aldaketa nabarmenena, gainontzekoan kirol sari horien helburuak bere horretan jarraitzen duelako: urtean zehar kirol mailan nabarmendu diren lagunak saritu, eta neurri berean, Debagoieneko kirolaren alde lanean dabilzan herritarrei merezitako errekonozimendua egin.

Arrasateko Santamasetako krosak Oñatin izango du erreleboa, San Silbestre lasterketarekin, hilaren 31n

Urteko azken egunean, ohiturari jarraituz, San Silbestre lasterketa egingo dute Oñatin, Antxintxiketan atletismo taldeak antolatuta. 16:30ean hasita gaztetxoendako probak egingo dituzte, eta nagusiek 17:00etan dute hitzordua, herriko kaleetan zehar presatu duten zirkuituan. Ez da izango, baina, eguneko kirol hitzordu bakarra, Zubikoan Debagoieneko esku-pilota txapelketen finalak jokatu dituzte-eta.



Ointxe! taldeko gazte mailako ordezkariak, zuzendariekin batera, martitzenean egin zuten aurkezpena. | IRATI GOITIA

Aloña Mendik entrenatzailea aldatuz amaituko du urtea; agur Pablo Diezi

X.U. | BERGARA

Aloña Mendik eta Mondrak etxean jokatu dute 2010eko azken jardunaldia, eta Aretxabaletak eta Bergarak kanpoan. Hala, jardunaldi berezi honetan Bergarak eta Aretxabaletak bihar, hilak 24, jokatu dituzte partidua. Bolada onean dagoen Aretxabaletak 15:30ean Hondarribian, eta behetik gora datorren Bergarak

Herrerako zelaian, Donostian (16:30). Mondrak eta Aloña Mendik, berriz, hilaren 26an jokatu dute, domekan.

Entrenatzaile aldaketa, Aloñak Domekan Aretxabaletaren kontrako derbia galdu ostean, Aloña Mendiko futbol saileko zuzendaritza batzordea bildu egin zen, eta Pablo Diez kargutik kentzea

erabaki zuen. Zuzendaritza batzordearen arrazoia oso garbia: "Taldea daraman bolada txarra bukatzeko irtenbideak topatzea". Hori horrela, Aitor Orueta izango da Ohorezko Erregional mailako entrenatzaile berria, orain arte kirol zuzendari lanetan ibili den etxeko gizona.

Mondrak, azkenik, joan den astean Idiazabaletik balio handiko hiru puntu ekarri ostean, domekan Pasajesen kontra jokatu du Mojategin, hirugarren postuan dagoen taldearen kontra, 16:30ean.



goienakluba

Abantailaz betetako kluba!

Opari ederrak zure esku!

goienakluba 2011

BAZKIDEA:

BAZKIDE ZENBAKIA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Bazkideentzako informazioa: 943 25 05 05

Gabonetan oparitu txartela

- Gabonetarako opariren bat falta bazaizu, aukera paregabea duzu: oparitu Goiena Klubeko txartela.
- Urtean 48 euro ordainduta askotariko abantailak izango dituzu.

Zozketa bereziak 2011n



Irabaz itzazu 350 euro

- 2011rako oparien artean 350 euro zozketatuko ditugu.
- Otsailaren 28a baino lehen bazkide egiten direnen artean egingo dugu zozketa.



Home Cinema zuretako

- 2011n bazkide izaten jarraitzen dutenen fideltasuna sarituko dugu.
- Otsailaren 14an Home Cinema bat zozketatuko dugu bazkide izaten jarraitzeko erabakia hartzen dutenen artean.
- Ezaugarriak dira: Panasonic SC-PT350W DVD Home Theater Sound system.

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | 2011 urteko bazkidetza: 48 euro.

www.goienakluba.com

Euskarazko palindromo lehiaketa antolatu dute lehenengoz bailaran

AEDk gertatutako ekimen horrekin hizkuntza "modu jolasgarrian" lantzea lortu nahi da

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Euskal Herri mailako lehiaketa bitxia antolatu du Arrasateko AED elkarteak: euskarazko palindromo lehiaketa, hain justu ere. Palindromoa zer den? Bada, aurretik atzera nahiz atzetik aurrera berdin irakurtzen den hitza, zenbakia edo esaldia.

AEDko teknikari Melina Lopezek azaldu digu parte-hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkez ditzakeela. Hori bai, lanek, ezinbestean, ulergarriak eta zentzudunak izan beharko dutela gaineratu du. Palindromoen luzera baloratuko da, epaitzeko orduan erabakigarria izango ez bada ere. Horren harira, azpimarratu nahi izan du palindromoaren luzera hitzen arteko espazioak kontuan hartu gabe neurtuko dela.

Otsailaren 11 baino lehen

Lanak aed@aedelkartea.com helbidera bidali behar dira, abenduaren 28tik otsailaren 11ra, palindromoarekin batera egilearen izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoak jarrita.

Epaimahaiari dagokionez, Lopezek aipatu digu Markos Gimeno palindromo egileak eta Erdu AEK-ko eta Arrasateko Udal Euskaltegiko ordezkariak osatuko dutela. Irabazleak otsailaren 21ean jakinaraziko dituzte, AED elkartearen webgunean (www.aedelkartea.com) eta Facebooken.

Bi sari banatuko dituzte: Euskal Herriko onenak Debako Txindurri-Iturri landetxe eta sagardotegian bi lagunendako sagardotegi afaria, logela eta gosaria irabaziko du; eta Arra-



AEDko Maite Agirre eta Melina Lopez, palindromo lehiaketan parte hartzeko gonbita egiten. | MIRIAN BITERI

ESANAK

"Orain arte antolatu den bakarrenetarikoa da gurea"

MELINA LOPEZ | AED-KO TEKNIKARIA

sateko onenak, oster, Arrasateko Txondorra erretegia lau lagunendako etxeko menu berezia.

"Modu jolasgarrian"

Lopezek gogorarazi du urtero antolatzen dutela lehiaketa, eta aurten zerbait berezia egitea erabaki dute. Hainbat aukera aztertu ostean, azkenean, euskarazko palindromoena egitea erabaki dute. Haren esanetan: "Modu jolasgarrian hizkuntza lantzeko aukera polita eskaintzen duela iruditzen zaigu".

Lehiaketa bitxia dela eta, hortaz, eskualde mailan antolatu beharrean Euskal Herri mailan egitea erabaki dutela ere esan digu: "Normalean, Debagoienean antolatzen ditugu horrelako lehia-

ketak, baina aurtengoa orain arte egin den bakarrenetarikoa da, eta hori zabaltzea merezi duela uste dugu".

Lehena, 1923. urtean

Azken horren harira, AEDko teknikariak azaldu du 1923koa dela ezagutzen den euskarazko palindromoaren lehen aurrekaria. Ebaristo Bustintza *Kirikiño* idazleak antolatu zuen lehenengo lehiaketa 1923ko abenduaren 16an, *Euzkadi* egunkariaren orrietatik. Bi hilabeteotan 150 palindromotik gora jaso omen zituzten erre-dakzioan.

Zer da palindromoa?

Palindromoa hitz edo espresio kapikua da. Ezkerretik eskuinera zein eskuinetik ezkerre berdin irakurtzen den hitz, esaldi edo zenbakia da, hain justu ere. Hitz horiek alderantziz irakurrita ere espresio zentzudunak dira hizkuntza berean, nahiz eta esanahiak ezberdinak diren. *Palindromos* hitza grekoa da. *Atzeraka korrika* esan nahi du.

Esate baterako, 3.883 zenbakia palindromoa da; Euskal hizkuntzan, *arazi* eta *izara* aipa daitezke. Hitz-jokoak gustatzen zaizkienendako dira.

Tailerra hilaren 28an

Bestalde, AEDn ohartu dira ez dela horren samurra horrelakoak sortzea, eta, hori dela-eta, horren gaineko tailerra gertatu dute abenduaren 28rako. Ermuko Markos Gimeno palindromo egileak eskainiko du, 18:30ean, Kulturaren Tailerra hitzalditxo batekin hasiko da, palindromoaren gaineko azalpen orokorrekin, eta jarraian, Gimeno hainbat arau eskainiko dizkie parte hartzen dutenei, palindromoak sortzeko. Aukera polita ideiak hartu eta lehiaketan parte hartzeko.

Butoh eta kontakt-inprobisazioa Arkupen

Jaiki elkarteak antolatuta, dantza ekitaldi berezia izan zen joan den egubakoitz iluntzean Aretxabaletako Arkupen. Marianela Ruizen eskutik *butoh* dantza ezagutzeko aukera izan zuten hara joan zirenek. Nagore Perez Larak eta Mireia Morenok, berri, kontakt-inprobisazio dantzak eskaini zituzten.



JAIKI

Martxoaren 25era arte aurkeztu daitezke Huhezinema lehiaketarako film laburrak

M.B. | ESKORIATZA

Martxan da Huhezinema euskal film laburren jaialdiaren laugarren edizioa. Dagoeneko lehiaketan parte hartzeko deialdia zabalik dago, eta martxoaren 25ean amaituko da lanak bidaltzeko epea.

Aurtengo egitarauak iaizko edizioaren ildotik jarraituko du. Dokumental, fikzio eta animaziozko film laburrak jasoko dituzte. 10 lan onenei saria emateaz gain, euskarazko lan onena, film labur onena eta publikoaren lan gustukoena sarituko dira.

Jaialdia maiatzaren 11n eta 12an izango da. Lehenengoan, hitzaldiaz gain, Ikus-Entzunezko Komunikazioko 3. eta 4. maila-tako ikasleen lanak ikusi ahaliko dira; eta maiatzaren 12an, lan onenak eskainiko dira eta sari banaketa egingo da.

Oñatiko rallya

Bestalde, urtarrilaren 8an Oñatiko I. film laburren rallya egingo dute. Ekitaldia institutu izango da; 09:30ean hasiko da eta 22:30ean amaitu, sari banaketa eginga.



Atom Rhumba talde bilbotarra izango da Danbakako finaleko talde gonbidatua. | GOIENA

Estiloari fidelitasuna eta jarrera saritu dituzte finalera iristeko

- Danbakako finala urtarrilaren 14an izango da
- Saria izango da Shot estudioan diskoa grabatzea

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Urtarrilaren 14an izango da Danbakako finala. Lord Witch, Xarma eta Desprezio iritsi dira laugarren edizio honetako finalera. Beti bezala, Elgetako Espaloian izango da finala, 22:30ean hasita.

Hiru taldeek euren emanaldia egin ondoren Atom Rhumbak kontzertua eskainiko du. Danbakako finaleko talde gonbidatua izango dira bilbotarrak. Rock-and-roll taldeak *Gargantuan Melee* azken lana zuzenean aurkeztuko du Espaloian; euren euskarazko lehen abestia jasotzen du lanak: *Istingako mutikoa*.

Finaleko taldeak

Estiloari fidelitasunak eta jarrerak eroan ditu hiru taldeak finalera. Lord Witch bergararren gainean epaimahaiak ondokoa dio: "Taularatze oso zaindua, detaileak asko zainduta. Zuzenean asko irabazten dute eta ikuskizuna ematen dute, ikuskizuna dira".

Xarma ondarrutarren gainean "mezua" daukatela dio epaimahaiak: "Kantu onak dituzte, garapen eta aldaketa nabariekkin", gaineratu dute.

"Bada ordua XXI. mendean *Do It Yourself* edo *Egizu zuk zeuk* errebindikatzeko. Naturaltasun

handia dute eta koherenteak dira", dio epaimahaiak Soraluze eta Bergarako Desprezio taldeaz.

Sariak

Talde irabazleak diskoa grabatuko du Shot estudioan. Kutzak babestutako saria izango da. Debagoieneko talde onenak, ostera, MUK babestuta, bideoklipa grabatuko du.

Gainera, ikusleen artean Laino skate parkeak emandako skate materiala eta urtebeteko sarre-ra doan zozketatuko dituzte. Sarrerak salgai daude 5 eurotan (Gaztekutxarekin, 3 euro).

Epaimahaikoen iritzia taldeei buruz

LORD WITCH

"Euren estiloa, heavya, muturreraino defendatzen dute; birtuosoak dira"



Lord Witch bergararrak. | GOIENA

DESPREZIO

"Freskotasuna daukate eta kontzertu dibertigarriak egiten dituzte"



Soraluze-Bergarako Desprezio. | GOIENA

XARMA

"Gauzak ondo egiten dakite eta ondo pasatzen dute; guztia ematen dute"



Xarma ondarrutarrak. | GOIENA

goienakluba

Abantailaz betetako kluba!

ABENDUKO ZOZKETA



Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

UMEENTZAKO LIBURUA

Bidali KLUBA LIBURUA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



UMEENTZAKO IPUINA

Bidali KLUBA ipuina
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



UMEENTZAKO DVD-A

Bidali KLUBA DVD
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



UMEENTZAKO PUZZLEA

Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zkr.



ERREMEIXUAK DVD-A

Bidali KLUBA ERREMEIXUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



DANBAKAKO PACKA

Bidali KLUBA danbaka
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

DANBAKA)))))



SARI NAGUSIA AZAROA-URTARRILA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

26 HAZBETEKO TELEBISTA

- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- Barneratutako TDT-a.
- HDMI.
- USB 2.0



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

